



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2020.05.28

Tolosako Udaletxean, 2020ko maiatzaren hogeita zortzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal

Partehartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Jose Francisco Amantegi Zubiria
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Egoitz Sorozabal Iturain
Xabier Balerdi Tolosa
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Aitana Amondarain Esquisabel
Aitzol Garcia Azurmendi
Olatz Artola Apezteguia
Ander Figuerido Zubiria bere izenean
eta Kristina Pelaez Errazkin a.ren
izenean.
Garbiñe Marzol Ormazabal
Xabier Martinez Quinquilla
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Haurren hiria. Mintza Txokoa Tolosako Udalbatzari landutako proposamenen azalpena egin eta Tolosako Herriari ikasturtean landutakoa ezagutaraztea.
2. Ondorengo aktak onartzea:
2020ko martxoaren 5ko Osoko Bilkurakoa.
2020ko apirilaren 17ko ezohiko eta presazko Osoko Bilkurakoa.



3. 5/2020 Kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
688/2020 Alkatetza Dekretua balioztatzea
4. Hasierako onarpena: 6/2020 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
5. Hasierako onarpena ematea Dirulaguntzen eranskinaren aldaketei.
6. Hasierako onarpena ematea aurrekontua gauzatzeko Arauaren aldaketari.
7. 2019ko Aurrekontuko diru-izendapenik gabeko ordainagiriak.
8. Onarpena ematea udal langileen eta dedikazioa duten korporaziokideen ordainsari-igoera, 2020. urtekoa. (EHBILDU alderdiaren emendakina).
9. Alkatetza Dekretuaren berri ematea: Tolosako udalaren alokairu publikoko etxebizitza parkean bizi diren eta COVID-19 pandemiaren ondoren zaugarritasun egoeran dauden maizterrei, aldi baterako alokairua eta komunitate gastuak ordaintzetik salbuestea xedea duten Oinarriak aldatzea.
10. Kreditu aldaketen berri ematea:
 - 2020/643 Alkatetza Dekretua, 1/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona, kreditu txertaketa modalitatean
 - 2020/646 Alkatetza Dekretua, 2/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona, kreditu transferentzien modalitatean
 - 2020/670 Alkatetza Dekretua, 3/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona, kreditu txertaketa modalitatean
 - 2020/680 Alkatetza Dekretua, 4/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona, kreditu gehigarrien modalitatean
11. Alkatzeko dekretu hauen berri ematea:
2020ko otsailaren 3tik apirilaren 30era (2020/223-2020/623).
12. Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa:
EAJ/PNV eta PSE-PSOE alderdi politikoen mozioa.
EHBILDU taldearen mozioa.
13. Galderak eta eskaerak.

Idazkariak adierazi du plenoa zoom bidez egingo dela Covid19 pandemiak eragindako alarma egoeraren ondorioz, eta horrekin batera, Youtubez zabalduko dela bilkurako publikitatea bermatzeko. Plenoa bukatutakoan herritarrek aukera izango dute galderak egiteko eta horretarako gobernantza @tolosa.eus helbidera igorri behar dituztela beraien galderak edo iradokizunak, Bestalde, adierazi du 2/2016 legeak Euskadiko Toki Erakunde buruzkoak bere 25.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kristina Pelaez Errazkin zinegotziak bere botoa eskuordetzean eman diola Ander Figuerido Zubiria zinegotziari, azken honek balio dezan.



TOLOSAKO
UDALA

Jarraian, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, Alkate-lehendakariak era telematikoan egingo den batzarrari hasiera eman dio 11/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean oinarrituz: «3. *En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.*

A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.».

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, Udal Idazkariak honako eginbideak egin ditu:

Lehenik.- Batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarrena.- Batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Irizpideen bozketa banan-banan egingo da, eta batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.

Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari ekin diote.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. HAURREN HIRIA. MINTZA TXOKOA TOLOSAKO UDALBATZARI LANDUTAKO PROPOSAMENEN AZALPENA EGIN ETA TOLOSAKO HERRIARI IKASTURTEAN LANDUTAKOA EZAGUTARAZTEA.

Arazi enpresako kideak proiektuaren berri eman du, hau da Tolosako haurrak ikasturtean zehar Tolosa hobetzeko ideiarekin landutakoa azalduko dute.



TOLOSAKO
UDALA

Haurren Hiria bidez Tolosako haurrek iritzia emateko aukera dute eta guztion artean zer nolako Tolosa nahi duten adieraztekoa.

CoVID19 osasun krisialdia dela eta, Mintza Txokoa ez da behar edo nahi bezala ospatu hortaz, proposamen ezberdin batekin burutuko da. Tolosako Haurren kontseiluko haur guztien parte-hartzearekin, bideo bat prestatu eta Udalbatza osatzen duten kideei erakustea da helburua: Haurren Hiriko ikasturteko lanketa kaleratzea, udalbatzari ezagutaraztea eta herritarrei helaraztea. Guztion beharra kontuan izanik Tolosa hobetzeko asmoz, jolastokiei, Kirol espazioei, hirigintza lanei, berdintasunari eta liburutegiari loturiko proposamenak eginez aurtengo ekitaldiari amaiera ematea.

Proiektzioaren ondoren honako parte-hartzeak izan dira:

- ... Alkatea: *“Kaixo, Arantxa, arratsalde on!. Pozten naiz lortu duzulako gurekin egotea. Zoriondu nahi dizut zu, eta zurekin lanean ari diren lagun guztiak, egin duzuen lan borobilagatik. Eskerrak eman baita ere, egin duzuen lan hori balio handikoa delako guretzako. Bereziki aipatu nahi dizut egindako lana, gainera, Tolosa denon hiria izateko egin duzuela eta hori oso inportantea da. Baita asko baloratzen dut eguraldi honekin zu gaur gurekin egotea. Badakigu eta, aipatu duzu baita ere, ezin izan duzuela egin betiko moduan. Hala ere bideoa prestatu duzue eskaera horiek osatzeko. Badakigu zer egoeratan egindako lana den. Lana horren haratago, larrialdi egoera honetan zuek eta beste gaztetxo guztiak izandako jarrera eredugarria izan da beste gaztetxoengan, eta horregatik, eskerrak eman dizkizuegu, nire eta baita ere udal ordezkariaren izenean, guzti guztiei. Proposamena zehatzak aurkeztu dituzue eta horiek denak kontutan izango ditugu. Inportanteak dira. Aipatu dituzu herriko jolastokiak egokitzea. Ikastetxetako eremuaz gain herriko jolasguneak era inklusiboan bilakatzeko konpromisoa hartzen dugu gaur Udalbatza honetan. Udalari begira, baita ere, kirol espazio gehiago sortzeko ahalegina egingo dugu, zuek eta, baita ere, helduok jolasteko modu egokiago batean. Berdintasuna aipatzen duzue zuen proposamenean. Berdintasunaren ere urratsak egingo ditugu estereotipoak hausteko eta gazteen artean eredu berriak sustatzeko. Hirigintza lanetan ere oinezkoei ematea izaten da gure asmoa, horregatik obrak egiten direnean herrian espaloiak zabaltzen dira lehentasuna oinezkoei emateko. Datozen urteetan ere liburutegi berria eta handiago eraikitzeke proiektua abiaraziko dugu. Haurren Hiria proiektuak daramatza sei urte martxan eta gero eta garrantzia handia du proiektu honek eta esango dizut zergatik: zuen parte-hartzeak eta zuen iritzia ezinbestekoak direlako etorkizuneko Tolosa eraikitzeke, Tolosa hobe bat marrazteke. Beraz, eskerrak Arantxa egindako lana guztiengatik, zuri eta zurekin aritu diren berrogeita hiruei. Ikastetxeei eskerrak eman nahi dizkiet egiten duten lana paregabeagatik eta nola ez, gurasoei.”*
- ... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU) *“Nik Arantxa zoriondu baina gure taldean badago kide bat zure adinekoen irakaslea dena eta esan dit berak adierazi nahi zizula zerbait. Zorionak izan ere proposamen interesgarriak eta ederrak egin dituzue.”*
- ... Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU) (irakaslea). *“Arantxa, nik nahi nizuen zoriondu egin duzuen aurkezpen polit honengatik, kurtsoa guztien zehar egin duzuen*



lanarengatik eta bideoa guri aurkezteagatik . Mila esker. Ez daukat dudarik zuek egiten dituzuen proposamen hauek balioko dutela guztiontzako, Tolosa hobetoago bat egiteko. Eta horregatik eskerrik asko, Anduk esan duen bezala, bosgarren mailako irakaslea naiz baina ibiltzen naiz maila ezberdinetan, baina badakizu zertaz konturatzen naizen? Zuek askotan dauzkazuela heldu bezain ideia onak eta askotan ideiak hobekak ere edukitzen dituzuela eta oso garrantzitsua dela zuei ere entzutea. Beraz, eskerrak Arantxa eta segi horrela. “

... Jose Mari Villanueva Telleria (PSE-EE): *“Kaixo Arantxa, beste irakaslea bat naiz baina batxilergokoei ematen dizkiet klaseak. Orain udaletxean nago eta egia da hemen egiten den lana oso aberasgarria dela, eskoletako lana bezain aberasgarria. Gauza oso politak esan dituzue, ados nago planteatutako gauza guztiekin. Zinegotzi guztien artean hemengo zaharrenak naiz eta ez ezin da imajinatu nola zen Tolosa orain dela berrogeita hamar urte, zenbat gauza aldatu diren, baina grazia egin dut sarearen proposamena. Orain dela berrogeita hamar urte arazo berdina genituen baloiarekin, zenbat baloi erre kara joaten zitzaizkigun. Zuek daukazue guk ez daukaguna eta da irudikatzeko gaitasuna. Urteak pasa ahala irudikapen hori galdu egiten da eta horregatik eskertu nahi dizut zuri eta zuen taldekoei. Egin duzue lana oso positiboa eta oso aberasgarria, gauza batzuk erakutsi dizkiguzue eta oso-oso polita da, Zorionak”*

Jarraian, Alkateak hitza eskatu du gai zerrendarekin jarraitu aurretik, larrialdi egoera ezarri zenetik ospatzen den lehenengo ohiko osoko bilkura delako:

.. *“Poliki-poliki ari gara ohizko jarduna berreskuratzen. Beraz, gaurkoan bizi izan ditugun eta oraindik ere biziko ditugun ezohiko eta une zailen ondotik Osoko bilkurari hasiera eman aurretik bi hitz aipatu besterik. Orain artean, inoiz bizi izan ez dugun larrialdi egoera bat bizitu eta kudeatu behar izan dugu. Denbora honetan Gobernu taldeko zinegotzi guztiak, Korporazio osoa, Idazkaria, Kontuhartzaileak eta baita Udal langile guztiak ere egin duten lana eskertu eta balioan jarri nahi nuke. Eskerrak eman nahi dizkizuet dedikazioarengatik, egoerara egokitzeko egin duzuen ahaleginarengatik eta herritarrei zerbitzurik eta erantzunik egokiena emateko izan den entrega guzti horrengatik. Hemen egunero elkar ikusi dugunok badakigu une zailak eta gogorak izan direla lana ordu luzeak, atsedunik gabekoak, tentsiopekoak eta nekezak. Aurrekaririk gabeko larrialdi egoera batean murgilduta ikusi dugu gure herria, gure burua eta Udal jarduna. Buru belarri aritu gara, presiopean askotan, gure onena ematen astelehenetik igandera lanean, egoerak hala eskatu duelako, dagokigun ardurarengatik herritarren kezkei, beharrei, beldurrei eta egoerari erantzuten. Eskerrik asko denbora honetan eta, baita ere, orain, herritarren zerbitzura egiten ari zareten lan guztiarengatik. Hori delako definizioz herrigintza. Uste dut, plenoari hasiera eman aurretik, gaurkoan, azpimarratu behar nuela lan hori, badaukatelako kezka eta da, agian batzuetan kanpotik ez dela ikusten burutzen den lan guztia eta mahai gaineratu behar dela. Ziur naiz, hartu ditugun erabaki batzuetan asmatu egin dugula, beste batzuetan ere zer hobetua ere izango dugula, noski, baina, badakit gure onena eman dugula helburu bakar batekin: herritarren segurtasuna bermatu eta beren beharrei erantzutea, arreta berezia jarrita zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen. Ziur naiz, jokatu dugu eta horrela jokatzen jarraitu behar dugu egoerak horixe eskatzen duelako. Herritarren*



eta herriaren alde lana eginez orain arte eta aurrerantzean egingo dugun moduan. Une zailak izan dira eta oraindik ere egoera konplexua da aldakorra eta ziurgabetasunean oinarritua. Datozen hilabeteak ere ez dira xamurrak izango baina orain arte bezala indarrak batuta, elkarrekin, eta elkarlanean, aurre egingo diogu egoerari. Badaude hitz batzuk baita ere hiru alderdiaren izenean, nire usteetan Andu aipatu nahiko lituzkeenak. Beraz, berari pasako diot hitza.”

... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU): *“Pertsona asko galdu ditugu, asko galdu dugu aste hauetan. Gertuko pertsonak galdu dituzuenoi besarkada bero bana eta doluminak. Azken egun hauetan berriz pozteko datuak izan ditugu. COVID 19ak ez baitu hildakorik eragin. .Egun zail honetan jende askok gogotik egin du lana krisia gainditzeko eta herritarren bizitza xamurragoa egiteko: osasun arloko langileak, erresidentzietako zaintzaileak eta garbitzaileak lehen leerroak izan zarete. Baldintza gogor horietan lanean eta maiz babestekorik gabe. Zorionak eta mila esker bihotzez. Tolosara etorrira zaintza sarean lanean aritu zareten eragile guztiei ezker bereziak eman nahi dizkizuegu:Auzolanean Tolosako kideei, Babes Zibilari, DYARI, Gurutze Gorriari, Peñascal Adinkide eta Zu eta NI erakundeei eta beraiekin lanean aritu diren udaleko Gizarte Zerbitzuetako langileei eta Berdintasuneko langilekoei eta, Olatz-ek adierazi moduan, gainontzeko langileei. Sekulako lana eta esfortzua egin duzue. Eskerrik beroenak. Horietaz gain, era batera edo bestera krisia hau leunago egiten lagundu duzuen herritar anonimo guztiei eta, segur aski aipatu gabe utzi ditugunei, guztiei ere, mila esker. Garai gogorak izan arren elkar zaintzaren garrantzia berresteko balioa izan du pertsonak eta zaintza erdigunean jartzeko. Txarrenari onena ateratzeko lagundu duzuen guzti guztioi eskerrik asko bihotz bihotzez.”*

Ondoren, gai zerrendako gaietara heldu diote:

2. ONDORENGO AKTAK ONARTZEA:

2020KO MARTXOAREN 5EKO OSOKO BILKURAKOA.

2020KO APIRILAREN 17KO EZOHIKO ETA PRESAZKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako bi aktak aho batez onartu dituzte.

3. 5/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN. 688/2020 ALKATETZA DEKRETUA BALIOZTATZEA

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatua (EAJ-PNV): *COVID 19 bete betean eragin du udal jardueran eta hainbat zerbitzu areagotu behar izan ditugu eta sortu dira hainbat egoera aurre egin beharrekoak .Gastu guzti hauek gaur egun, 405.000 eurotara. Hor banatu zaigun dokumentazioa azaltzen den bezala, finantzatuko ziren gerakinetatik gehigarri modalitateko kreditu bat baina gastuak ziren*



premiazkoak arau dekretu bat sortu zen maiatzaren 14n non prozesu arintzeko ahalbideratzen zuen alkatearen dekretuaren bidez onartzea, baina gero plenoan k balioztatu behar zen. Ondoren GAOn argitaratu behar zena. . Azaldu eta adierazi genuen Antolakuntza batzordean egin genuenean, baina aipatzeko gastu inportanteenak dira: Bedaion jarritako interneta, gastua 16.000 eurokoa, Tolosa &Co bonoaren kudeaketarengatik dirulaguntza 6.000 eurokoa, eta kasu honetan sartzen da baita ere hemendik gutxi aterako diren ostalaritzako bonoak, 30.00 eurokoetan. Bestalde Peñascalek egindako lanarengatik, elikagaien banaketa, Abegiren kudeaketa apiriletik uztaileira eta baita egingo den kudeaketa Gurutz Gorriko etxean uztailearaino. Baita Familiei zuzendutako dirulaguntza handitu dira. 30.000 eta hainbat gastu egin direnak: langileak bueltatzeko hartu behar diren segurtasun neurriak betetzeko materiala. Azoka Ezohiko egoeran gauzatzeko hainbat gastuei aurre egiteko babeserako materiala erosi eta banatu da, saltokietan eta azokan, besteak beste.. Bestalde, aipatu den bezala langileak jarraitu dute beraien lanetan baina egokitzapen informatikoak egin behar izan dira eta baita ikasleen beharrei aurre egiteko ekipo informatikoak erosi ziren, gastu guztira 40.000 eurotara iritsiz. Azkenean, gastu guztiak dira COVIDari aurre egiteko eta momentu honetan kontabilizatuta daukaguna 405.000eurokoa, kreditu gehigarri modalitatekoa. “

...Alkatea: Aipatu nahi dut larrialdi egoera ezarri zenetik gure lehentasuna aipatu izan dugun bezala egin diren komunikazio publiko guztietan, herritarren segurtasuna bermatzeko izan dela eta beraien beharrei erantzutea eta horretara bideratu direla indarrak eta baita ere baliabideak Begoñak aipatu dituen bezala. Herritarren ongizatea eta gizarte babesak bermatzea lehenetsi da. Behar berezia izan dituzten eta dituzten herritarrek babestuz eta artatuz. Horregatik oinarrizko zerbitzu gisa izendatu ziren lehen egunetik Udaltzaingoa, Gizarte zerbitzuak eta Herritarren Arreta Zerbitzua. Denbora honetan ere hainbat zerbitzu indartu egin dira, esate baterako indarkeria jasaten duten emakumeen arreta zerbitzua edo bakarri bizi diren adineko pertsonen ere deiak egin zaizkie beraien beharrak ezagutzeko eta bideratzeko. Arlo honetan boluntario taldeak aipatu nahi ditut. Diru-laguntzak areagotu dira eta beharrezko diren baliabideak herritarren eskura konpromiso berari heltzen diogu aurrera ere gure lehentasuna delako pertsonak erdigunean kokatu eta gizarte babesak bermatzea inor atzean geratu ez dadin. Egin diren gastu eta inbertsio guztiak helburu izan dute herritarren ongizatea bermatzea, gizarte zerbitzuak eta gizarte babesak bermatzea, herritarren beharrak artatzea eta herritarrei kalitatezko zerbitzua bermatzea. Oraindik aurrera begira ere Tolosarren beharrei erantzutea eta ongizate bermatzea aldera lehentasunekoa izango da guretzat gure hiri ekonomia babestea eta gure herri izaerari heltzea Tolosak aurrera egin dezan.”.



Antolakuntza Batzordeko 2020ko maiatzaren 20ko irizpena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2020/5 espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa. Hau da proposamena:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1100.481.01.431.00 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. MERKATARITZA	149.600,00	38.180,00	187.780,00
1 1300.480.01.172.00 2020	DIRULAGUNTZAK FAMILIEI. INGURUMENA	0,00	16.000,00	16.000,00
1 1100.221.99.431.10 2020	BESTELAKO HORNIDURAK. FERIA ETA AZOKAK	18.500,00	25.000,00	43.500,00
1 0500.227.04.231.00 2020	KONTRATU SOZIO KULTURALAK. GIZARTE ZERBIT	503.717,00	172.263,00	675.980,00
1 0500.480.01.231.00 2020	FAMILIEI.GIZARTE ZERBITZUAK	110.000,00	70.000,00	180.000,00
1 0300.221.99.920.30 2020	BESTELAKO HORNIDURAK. UDALETXEA	40.000,00	30.000,00	70.000,00
1 0300.227.11.920.20 2020	INFORMATIKA.ZERBITZUAK. INFORMATIKA	344.930,00	9.500,00	354.430,00
1 0300.626.01.920.20 2020	INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK. INFORMATIKA	40.000,00	27.200,00	67.200,00
1 0300.644.01.920.20 2020	APLIKAZIO INFORMATIKOAK	15.000,00	6.300,00	21.300,00
1 0400.221.99.130.00 2020	BESTELAKO HORNIDURAK. UDALZAINGOA	4.000,00	2.500,00	6.500,00
1 0400.221.99.135.10 2020	BESTELAKO HORNIDURAK. BABES ZIBILA	4.000,00	1.000,00	5.000,00
1 0700.221.99.153.40 2020	BESTELAKO HORNIDURAK. ZERBITZU OROK. LANTALDEA	70.000,00	1.600,00	71.600,00
1 1400.226.06.231.60 2020	JARD.SOZIO-KULTURAK. BERDINTASUNA	63.945,00	3.700,00	67.645,00
1 0500.481.01.231.00 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. GIZARTE ZERBITZUAK	230.876,00	2.000,00	232.876,00
GUZTIRA		1.594.568,00	405.243,00	1.999.811,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2020	ALTXORTEKIKO GERAKINA	405.243,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			405.243,00



TOLOSAKO
UDALA

Kontu-hartzaileak egindako txostena aztertu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Maiatzaren 12ko, 3/2020 Foru Arauak, 2. artikuluan, adierazten du Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak Alkatearen dekretu bidez izapidetuko direla, eta hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko direla.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Kristina Pelaez Errazkin, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amundarain Eskisabel

Hau dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	245.563,00
4	TRANSFERENTZIAARRUNTAK	126.180,00
6	INBERTSIO ERREALAK	33.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		405.243,00



FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZAAKTIBOAK	405.243,00
GUZTIRA		405.243,00

Bigarrena.- Honen berri Udalbatzari ematea, honek baliozkotu dezan, egiten duen hurrengo bilkuran.

Hirugarrena.- Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 5/20 kreditu aldaketarako espedientea eta 688/2020 dekretua balioztatzea.

4. HASIERAKO ONARPENA: 6/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia Ogasuneko zinegotzi delegatuak (EAJ-PNV) azalpenak eman ditu: *“Daukagu 6 .Kreditu gehigarri modalitatekoa baina arruntena, jarraituko dugu betidanik egin den prozedura. Finantrazioa gerakinak erabiliz egiten da eta, onartzen bada ekartzen dugun proposamena, argitaratuko da buletinean, hamabost egunez, eta epe horretan alegaziorik ez badago, argitaratu berriz eta behin betiko onarpena jaso eta martxan jarriko da. Batzordean aipatu ziren gaiak baina nabarmenenak berriro aipatuko ditut. Alde batetik, 376.000 euro egin diren kontratazio berrientzat eta beste*



bi egingo diren soldatarako. Bestalde, 218.000 euro soldataren igoerarentzat. Aparteko 2018. urteko gastu batzuk txertatu ezin direnak eta beraz, derrigorrez kreditu gehigarri modalitatean joan behar direnak. Edukiko dugu baita ere 7. puntuazaltzen diren 2019ko aurrekontuetan diru izendapenik gabeko gastuak Horretaz aparte, hainbat gastu, esate baterako, Inbentarioa egiteko 70.000 euro jartzen dugu martxan; adizioaren aurkako plana eguneratzea eta artxiboaren antolaketa beste 10.000 euro; Enperadore kaleko 37ko fatxada berritzeko 50.000 euro; Abegiko obra eta Zu eta Ni egoitzaren egokitzapena bien arten 461.000 euro. Aurrekontuan onartu genituenean aipatu genuen nahi genuela informatikako zerbitzu osoari buelta eman eta bi faseetan egingo zela. Momentu honetako egoera kontutan izanik, fase gehiagoetan egingo da, beraz, batzordean komentatu genuen lehenengo fasean jarritako batzuk gerorako utziko direla baina zeuden beste batzuk, antibirusak, aplikazioak eta lizentziak, guztira 100.000 euroko gastua edo inbertsioa aurrera egin behar zitzaiaola nahita nahiez. Gero horretaz aparte, urterokoak, argiteria 80.000 euro; Samaniegoko gimnasioaren teilatua 200.000 euro. Komentatu genituen artean autobus elektrikoa da beste erronka edo apustu handi bat egin duguna herrian eta horretarako kargu puntua egokitzeko 80.000 euro beharko genituzke. Biziberritzeko programa elikatzen goazena behar den heinean, kasu honetan 5.400 euro izango dira. Familia esku-hartzea indartzeko 24.000 euro. Guztira, kopurua borobilduz, 2.200.000 euro, gerakinetatik finantzatuko dena. Hau da gure proposamena .”

... Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU): *“Egia esan kreditu aldaketa honek, Begoñak oso ondo azaldu duenez, gauza asko biltzen ditu eta zaila eta astuna izango litzateke bakoitzean balorazio zehatza egitea. Baina orokorrean badaude beharrezkoa diren hainbat eta hainbat gastu eta gastu gehienei bidea ematearekin ados gaude. Hau esanda gure kezka azaldu nahi genuke moduei dagokienean. Oraintxe kreditu aldaketa honekin bozkatzeko ari garena 2.258.000 euroko gastua da, zifra nahiko potoloa, edukiz betea eta diagnosi sakona behar duena. Zalantzarik ez dugu egiten diagnosi hori ondo eginga duzuela baina hainbesteko aldaketek, gure iritsiz, orain dela hilabete batzuk onartutako aurrekontua egiazkotasuna nolabait ezbaian jartzen dut. Aurrekontuak eta kreditu aldaketak tresna tekniko gisa udal baten egunero jarduera ahalbideratzen dute eta, zentzu horretan, noski, ez dugu jartzen zalantzan aldaketa hauen egokitasuna. Aurrekontuak, ordeak, tresna politikoak ere badira eta proposatzen ditugun proiektu eta inbertsioak bildu beharko lituzke, hau da, gure herritarrei hartu ditugun konpromisoen berri emateko balio dute nolabait. Horiek ezin badira bete edo egoerak horrela eskatuta beharrak aldatu badira, baliagarriak dira kreditu aldaketa hauek, eta gaur egun bizi dugun egoera honen hain zuzen ere argi eta garbi erakutsi digu tresna hauen balioa. Kreditu aldaketen gehiegizko erabilerak ordea, aurrekontuen eta kudeaketaren planaren asimilazioa edo jarraipen egokia egitea galeratzen du, behintzat zaildu egiten du. Duela hilabete batzuk esan genuena, gaur ere mahai gainera jarrita, gure ustez, hasierako aurrekontuen helburua partida*



gehienak jasota egon beharko luke nahiz eta jakin %100ean ez dela posible, aldaketa batzuk ezinbestean egin behar daudela. Baina laburbilduz, eta gure lehenagoko aurrekontuen eztabaidan eduki genuen iritzi horretan irrimo mantenduz, edukiekin orokorrean bai, ados gaude, baina formen, aurrekontuen etengabeko egokitzepean eredu horrekin bat ez dugun egiten, puntu honetan abstentzio emango dugu. Dena den, orain Udalak badu erronka garrantzitsu bat aurrekontuaren egokitzapenekin osasun krisi honek eragindako egoera sozioekonomiko honetara, eta lehengoan Begoñak aipatu zigun, badakigu buru belarri zabiltzatela honetan eta, berriz ere, gure prestatutasuna adierazi nahi dizuegu ahal dugun neurrian eta ohikoa baino pixkat denbora gehixegoarekin ekarpenak egiteko aukera edukitzea eta duela aste batzuk helarazi genizuen proposamenak bertan nola txertatu edo nola egokitu ahalbideratzeko. Besterik gabe.”

... Alkatea: “Badakizu ariketa oso konplexu bat egin behar izan dugula oso denbora laburrean. Guztia kokatu modu koordinatuan, gainerako erakundeekin lan eginez, dagokigun arduratik eta gure eskumenetik abiatuta. 2020. aurrekontua berraztertzen gabilta. Jadanik onartu genuen aurrekontu bat, proiektu beharretara lehentasun eta egoera berrietara egokitzeko. Pertsonak erdigunean kokatuz beste behin, lehentasuna osoa emanez gizarte alorrari eta baina baita ere alor ekonomikoari. Aurreikuspenak egin behar dira 2020. urterako baina oso kontutuan izan da 2020. urtearen ondotik 2021. urtea ere badatorrela. Diru sarrerak nabarmen jaitsiko dira aurten eta datorren urteko egoera ere konplexua izango da. Koronabirusak sektore ekonomiko guztiak gogor kolpatu ditu baina baita ere gogor astindu du erakunde publikoa. Foru Funtsa udalon diru sarrerara nagusienetako bat eta % 20 eta 25eko bitarteko beherakada izango dugu. Udalak ere urtero izaten duen errekaudazioa jaitsi egingo du eta horrek ariketa inportantea egitera emango gaitu. Esan bezala, 2020 urtea ez ezik 2021. urtea kontutan izanik hartu behar dira erabakiak. Lehentasunak aipatu ditut: gizarte babesa, herri ekonomikoa, herri sarea. Jarduera ekonomikoa babesteko egin dugu inbertsio publikoa mantentzearen aldeko apustua. Horrek Tolosako eta Tolosaldeako enpresen jarduera bultzatuko duelako. Ildo horretatik, datorren urteko egoera zein izango den ez dakigunez, aurtengo urterako aurreikusia genuen proiektu eta lanak mantentzearen alde egin dugu aurreko aipatutako lehentasunak bermatuta noski. Era berean, Udaletik elkarte, talde eta eragile guztiei emandako diru-laguntzak mantentzeko ahalegina ere egin dugu aurten, bere jarduna babesteko helburuarekin. Eta beraz, 2020. urteko aurrekontuak izan ditu beherakadak baina bereziki horiek lotura izan duten bertan behera eta ospatu ezinik geratu diren jarduerekin. Esate baterako, azoka berezia. Baliabide horiek koronabirusak sortutako beharretara bideratu ditugu. Oso aldakorra den egoera baten aurrean gaude horregatik, sortuko daitezkeen beharrei erantzuteko aurreikuspenak ere egin beharko ditugu aurrera begira ere.”



Antolakuntza Batzordeko 2020ko maiatzaren 20ko irizpena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 6/2020 espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa. Hau da proposamena:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0200.120.01.931.00 2020	OINARRIZKO ORDAINKETAK. ADMINISTRAZIO FINANTZARIOA	180.195,00	5.260,00	185.455,00
1 0200.121.00.931.00 2020	ORDAINKETA OSAGARRIAK. ADMINISTRAZIO FINANTZARIOA	317.555,00	10.353,00	327.908,00
1 0200.160.01.931.00 2020	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK. ADMINISTRAZIO FINANTZARIOA	125.916,00	5.030,00	130.946,00
1 0300.120.01.920.00 2020	OINARRIZKO ORDAINKETAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA	191.108,00	10.480,00	201.588,00
1 0300.121.00.920.00 2020	ORDAINKETA OSAGARRIAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA	326.808,00	17.260,00	344.068,00
1 0300.160.01.920.00 2020	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA	145.592,00	9.141,00	154.733,00
1 0300.120.01.920.20 2020	OINARRIZKO ORDAINKETAK. INFORMATIKA	53.146,00	15.010,00	68.156,00
1 0300.121.00.920.20 2020	ORDAINKETA OSAGARRIAK. INFORMATIKA	75.994,00	31.111,00	107.105,00
1 0300.160.01.920.20 2020	GIZARTE SEGURANTZA. INFORMATIKA	35.600,00	14.275,00	49.875,00
1 0500.120.01.230.00 2020	OINARRIZKO ORDAINKETAK. GIZARTE ZERBITZUAK	150.123,00	11.446,00	161.569,00
1 0500.121.00.230.00 2020	ORDAINKETA OSAGARRIAK. GIZARTE ZERBITZUAK	209.039,00	19.471,00	228.510,00
1 0500.160.01.230.00 2020	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK. GIZARTE ZERBITZUAK	109.666,00	9.645,00	119.311,00
1 0600.120.01.151.10 2020	OINARRIZKO ORDAINKETAK. HIRIGINTZA	119.934,00	24.653,00	144.587,00
1 0600.121.00.151.10 2020	ORDAINKETA OSAGARRIAK. HIRIGINTZA	226.531,00	53.268,00	279.799,00



TOLOSAKO
UDALA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0600.160.01.151.10 2020	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK. HIRIGINTZA	117.109,00	26.655,00	143.764,00
1 0700.120.01.153.00 2020	OINARRIZKO ORDAINKETAK. OBRATAKO ADMINISTRAZIOA	113.970,00	11.446,00	125.416,00
1 0700.121.00.153.00 2020	ORDAINKETA OSAGARRIAK. OBRATAKO ADMINISTRAZIOA	217.781,00	21.514,00	239.295,00
1 0700.160.01.153.00 2020	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK. OBRATAKO ADMINISTRAZIOA	103.845,00	11.994,00	115.839,00
1 0700.120.01.165.00 2020	OINARRIZKO ORDAINSARIAK. ARGITERI PUBLIKOA	0,00	11.446,00	11.446,00
1 0700.121.00.165.00 2020	ORDAINSARI OSAGARRIAK. ARGITERI PUBLIKOA	0,00	21.514,00	21.514,00
1 0700.130.00.165.00 2020	LABORAL FINKOEN ORDAIN. ARGITERI PUBLIKOA	0,00	16.727,00	16.727,00
1 0700.160.01.165.00 2020	GIZARTE SEGURANTZA. ARGITERI PUBLIKOA	0,00	17.012,00	17.012,00
1 0300.160.04.920.00 2020	ELKARKIDETZA. ADMINSTRAZIO OROKORRA	12.169,00	1.020,00	13.189,00
1 0600.160.04.151.10 2020	ELKARKIDETZA. HIRIGINTZA	10.127,00	1.020,00	11.147,00
1 0200.141.00.929.00 2020	BESTE PERTSONALA ZEHAZTUGABEKOAK	70.900,00	218.500,00	289.400,00
1 0300.226.04.920.00 2020	JURIDIKOAK ADMINISTRAZIO OROKORRA	40.000,00	12.902,00	52.902,00
1 0500.491.01.231.00 2020	NAZIOARTEKO LAGUNTZA. GIZARTE ZERBITZUAK	55.000,00	30.000,00	85.000,00
1 0600.226.04.151.10 2020	JURIDIKOAK. HIRIGINTZA	30.000,00	2.904,00	32.904,00
1 0600.227.07.151.10 2020	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. HIRIGINTZA	30.000,00	4.659,00	34.659,00
1 0600.642.01.151.10 2020	PLANEAMENDUA HIRIGINTZA	30.000,00	52.272,00	82.272,00
1 0700.643.01.153.00 2020	AZTERKETA ETA PROIEKTUAK. OBRATAKO ADMINISTRAZIOA	160.000,00	12.040,00	172.040,00
1 0500.227.04.231.10 2020	KONTRATU SOZIO-KULTUR. ETXEZ ETXEKO PLANA	895.000,00	81.100,00	976.100,00
1 0900.227.01.323.20 2020	GARBIKETA. SAMANIEGO IKASTETXEA	91.900,00	45.000,00	136.900,00



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0700.223.01.441.20 2020	GARRAIOAK. TAXI ZERBITZUA	50.000,00	10.200,00	60.200,00
1 0300.227.07.920.00 2020	AZTERK. ETA LAN TEKNIKOAK ADMINISTRAZIO OROKORRA	40.000,00	70.000,00	110.000,00
1 0300.220.03.920.20 2020	MATERIAL INFORMATIKO EZ INBENTARIAGARRIA	6.000,00	20.000,00	26.000,00
1 0500.226.99.231.00 2020	HAINBAT GASTU. GIZARTE ZERBITZUAK	20.000,00	10.500,00	30.500,00
1 0600.680.01.151.10 2020	LURSAILAK. HIRIGINTZA	0,00	50.000,00	50.000,00
1 0700.211.01.920.31 2020	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. ERAIKIN PUBLIKOAK	60.000,00	20.000,00	80.000,00
1 0700.226.99.414.00 2020	BESTE ZENBAIT GASTU LANDA GARAPEN	0,00	18.000,00	18.000,00
1 0700.227.07.153.00 2020	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. OBRATAKO ADMINISTRAZIOA	43.500,00	37.640,00	81.140,00
1 0700.227.07.153.20 2020	ESTUDIO ETA LAN TEKNIKOAK. BIDE PUBLIKOAK	0,00	50.000,00	50.000,00
1 0700.622.02.920.31 2020	ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK	70.000,00	461.300,00	531.300,00
1 0700.623.01.153.20 2020	MAKINERIA. BIDE PUBLIKOAK	3.000,00	3.000,00	6.000,00
1 0700.623.05.165.00 2020	MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK. ARGITERIA	20.000,00	80.000,00	100.000,00
1 0700.625.99.153.40 2020	EKIPAMENDUA. ZERB. OROKOR. LANTALDEA	29.000,00	37.100,00	66.100,00
1 0800.211.01.333.00 2020	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. ARAMBURU JAUREGIA	11.000,00	6.700,00	17.700,00
1 0800.226.06.333.10 2020	JARDUERAK SOZIO KULTURALAK. LEIDOR	5.500,00	6.700,00	12.200,00
1 0800.227.04.334.10 2020	KONTRATU SOZIOKULTURALAK. KULTURAREN SUSTAPENA	32.000,00	17.000,00	49.000,00
1 0900.211.01.326.10 2020	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. E.P.A- H.H.I.	3.500,00	7.800,00	11.300,00
1 0900.622.02.323.20 2020	SAMANIEGOKO OBRAK	0,00	200.000,00	200.000,00
1 1000.622.02.342.20 2020	FRONTOIAREN OBRA	0,00	24.520,00	24.520,00
1 1300.226.99.441.10 2020	BESTE GASTU. GARRAIO PUBLIKOA	10.000,00	9.000,00	19.000,00



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1300.623.02.441.10 2020	INSTALAZIOAK. GARRAIO PUBLIKOA	0,00	80.000,00	80.000,00
1 0300.227.11.920.20 2020	INFORMATIKA ZERBITZUAK. INFORMATIKA	354.430,00	38.500,00	392.930,00
1 0300.626.01.920.20 2020	INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK. INFORMATIKA	67.200,00	15.000,00	82.200,00
1 0300.644.01.920.20 2020	APLIKAZIO INFORMATIKOAK	21.300,00	29.000,00	50.300,00
1 0500.227.04.231.00 2020	KONTRATU SOZIO KULTURALAK. GIZARTE ZERBITZUAK	675.980,00	24.000,00	699.980,00
1 0700.601.03.153.20 2020	GERNIKAKO ARBOLAREN URBANIZAZIOA	500.000,00	32.670,00	532.670,00
1 1100.481.01.431.00 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. MERKATARITZA	187.780,00	5.400,00	193.180,00
GUZTIRA		6.455.198,00	2.200.158,00	8.655.356,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2020	ALTXORTEKIKO GERAKINA	2.200.158,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			2.200.158,00

Kontu-hartzaileak egindako txostena aztertu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaien legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, eta Jose Mari Villanueva Telleria.



TOLOSAKO
UDALA

Abstentzioa: Kristina Pelaez Errazkin, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amundarain Eskisabel

Hau dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 6/2020 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	595.251,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	492.605,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	35.400,00
6	INBERTSIO ERREALAK	1.076.902,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		2.200.158,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	2.200.158,00
GUZTIRA		2.200.158,00

Bigarrena.- Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzio botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **onartu du** hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 6/2020 espedienteari.

5. HASIERAKO ONARPENA EMATEA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETEI.

Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatua (EAJ-PNV) azalpenak eman ditu eta eranskina aldatzeko prozedura argitu du:

... Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU): *“Guztiarekin ados baina aipatu Antolakuntza batzordean jakinarazi genuen bezalaxe, onartu behar dugun 2020ko diru-laguntzaren eranskina aldatzeko proposamen honetan konturatu gara oraindik ere 2018ko diru-laguntza bat ordaindu gabe dagoela, Kontseiluarena zehazki, eta arrazoia zuriketa behar bezala ez egin izan omen da. Argitzeko eskatu genuenean jakinarazten ziguten 2017. eta 2018. urtean, diru-laguntza zuriketa egiteko dekretua aldatu egin zela eta ikusi dugu horrek zaildu egiten duela prozesua. Hortaz, zuriketa prozesu berrikusteko eskaera luzatzen dugu horrelakorik ez berriro gertatu ez dadin. Izan ere, honek guztiak hurrengo urteetako diru-laguntzak geldiarazi egiten ditu eta horrek eskatzailearen eguneroko martxan eragina dauka. “*



Antolakuntza Batzordeko 2020ko maiatzaren 20ko irizpena.

2020ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenak hauek dira:

Partida	Onuraduna IZENA	Helburua	Behin-betiko Aurrekontua 2020	Tipoa
0500.480.01.231.00	FAMILIAK	Hainbat laguntza familiei.	70.000,00	akordioa
0500.480.01.231.40	FAMILIAK	Gizarte larrialditako laguntzak	101.546,00	legea/akordioa
0500.481.01.231.00	ELKARTEAK	Gizarte zerbitzutako laguntzak elkarteei	52.276,00	Konpetentzi lehiakorra
0500.481.01.231.00	ZUTANI-TOLOSA	Elikagaien bankua.	2.000,00	izenduna
0900.481.01.335.10	KONTSEILUA	Ohiko jarduera	1.250,00	izenduna
1100.481.01.430.00	ENPRESAK	lehiakortasuna	-3.000,00	Konpetentzi lehiakorra
1100.481.01.430.00	INMAKULADA IKAST.	Lanbide heziketa feria	-3.000,00	izenduna
1100.481.01.430.00	LANBIDE INSTITUTUA	Pantailak. Covid-19	6.000,00	izenduna
1100.481.01.431.00	TOLOSA & CO	Merkataritza bultzatzea	6.000,00	izenduna
1100.481.01.431.00	TOLOSA & CO	Suspertu Tolosa. Covid-19. Merkataritza	92.380,00	izenduna
1100.481.01.431.00	TOLOSA & CO	Suspertu Tolosa. Covid-19. Ostalaritza	30.000,00	izenduna
1100.481.01.431.00	BESTERIK	Merkataritza biziberritzea	5.400,00	Konpetentzi lehiakorra
1300.480.01.172.00	FAMILIAK	Bedaion interneta zabaltzeko. Covid-19	16.000,00	izenduna
0500.491.01.231.00	ELKARTEAK	Nazioarteko dirulaguntzak	30.000,00	Konpetentzi lehiakorra

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Kristina Pelaez Errazkin, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amundarain Eskisabel

Hau dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketei hasierako onarpena ematea, aldatu-tako dirulaguntza horiek honela utziz:

Partida	Onuraduna IZENA	Helburua	Behin-betiko Aurrekontua 2020	Tipoa
0500.480.01.231.00	FAMILIAK	Hainbat laguntza familiei.	180.000,00	akordioa
0500.480.01.231.40	FAMILIAK	Gizarte larrialditako laguntzak	266.546,00	legea/akordioa
0500.481.01.231.00	ELKARTEAK	Gizarte zerbitzutako laguntzak elkarteei	52.276,00	Konpetentzi lehiakorra
0500.481.01.231.00	ZUTANI-TOLOSA	Elikagaien bankua.	10.000,00	izenduna
0900.481.01.335.10	KONTSEILUA	Ohiko jarduera	1.250,00	izenduna
1100.481.01.430.00	ENPRESAK	lehiakortasuna	12.000,00	Konpetentzi lehiakorra
1100.481.01.430.00	INMAKULADA IKAST.	Lanbide heziketa feria	2.000,00	izenduna
1100.481.01.430.00	LANBIDE INSTITUTUA	Pantailak. Covid-19	6.000,00	izenduna
1100.481.01.431.00	TOLOSA & CO	Merkataritza bultzatzea	36.000,00	izenduna
1100.481.01.431.00	TOLOSA & CO	Suspertu Tolosa. Covid-19. Merkataritza	92.380,00	izenduna
1100.481.01.431.00	TOLOSA & CO	Suspertu Tolosa. Covid-19. Ostalaritza	30.000,00	izenduna
1100.481.01.431.00	BESTERIK	Merkataritza biziberritzea	28.800,00	Konpetentzi lehiakorra
1300.480.01.172.00	FAMILIAK	Bedaion interneta zabaltzeko. Covid-19	16.000,00	izenduna
0500.491.01.231.00	ELKARTEAK	Nazioarteko dirulaguntzak	30.000,00	Konpetentzi lehiakorra



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2020ko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** dirulaguntzen eranskinaren aldaketei hasierako onarpena ematea.

6. HASIERAKO ONARPENA EMATEA AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAREN ALDAKETARI.

Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatuak (EAJ-PNV) azalpenak eman ditu.

Antolakuntza Batzordeko 2020ko maiatzaren 20ko irizpena.

Hirigintza eta Obra Sailak, 9/2017 Legearen 118. artikulua aldaketa oinarri hartuta (2020ko otsailaren 5eko BOE, 31. zk.), Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 37. artikulua idatzketa aldatzeko eskaera hau luzatu du:

1. atala:

2. paragrafoko testu hau ezabatu: "gehieneko kopuru banakatua 600 euro izanik"



*Kutxa finkoko aurrerakintzat hartuko dira aurrekontuz kanpoko fondo-hornikuntza iraunkor batzuk, zeinak egiten baitzaizkie ordaindegiei, kutxei eta gaikuntzei berehalako arretarako, eta erabiltzen baitira urteko aurrekontuaren geroko aplikaziorako, **gehieneko kopuru banakatua 600 euro izanik**; ohiko arreta aldizkako edo errepikakorretarako gastuak sartzen dira hor, besteak beste, dietak, bidaia-gastuak, ibilgailuen ikuskapen teknikoak, bulegoko material inbentariaezina, artapena, ordezeko piezak eta antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk.*

2. atala:

Azken aurreko paragrafotik "laurdena" testua ezabatu.

Azken paragrafoan, honako zenbateko hau aldatu: 1.500,00 eurotik 3.000,00 eurora.

*Alkateak baimenduta izango dira, eta beren kopurua ezin aplikatuta dauden aurrekontuetako partidaren **laurdena** baino handiago izango da, kutxa finkoko aurrerakinen bidez finantzatzen diren gastu finkoak.*

*Aurrerakin bakoitzaren kopurua ez da **1.500** euro baino handiagoa izango, salbuespenetan izan ezik.*

3. Atala:

2. paragrafotik ondorengo testua ezabatzea: "Kontu hauek emango dira gehienez hilabete bateko epean aurrerakina eman den egunetik kontatzen hasita, eta, beti ere,"

*Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek jasotako aurrekinen kontua eman beharko dute udal Kontuhartzailetzaren aurrean, egindako ordainketen kontabilitatea eta jatorrizko egiaztagiriak aurkeztuta. **Kontu hauek emango dira gehienez hilabete bateko epean aurrerakina eman den egunetik kontatzen hasita, eta, beti ere, abenduaren 15 baino lehen.***

4. Atala:

Atala ezabatu.

4.- Aurreko puntuan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, eta hiruhileko natural bakoitzeko azken dataz, baimendutakoek kontua emango diote Diruzainari zein izan diren egindako erabilpenak eta nola dauden fondoak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 43.3 artikuluan jasotakoa kontuan hartuta:

3.- Aldizkakoak edo errepikakorrak diren gastuetarako, zuritu beharreko funtsak kutxa finkoko aurrerakinak izan daitezke. Funts horiek jasotzen dituztenen obliga-



TOLOSAKO
UDALA

zioa da jasotako kopuruen aplikazioa zuritzea aurrerakina eratu zen aurrekontu ekitaldian.

Aipatu behar da funtsen hornidura berritu ahal izango dela aurreko likidazioa aurkeztu ondoren, baldin eta zenbateko horrek ez baditu gainditzen gastu horiek aplikatuko diren aurrekontu-partidako kredituak.

Hau dela eta, aldaketa hauek egiteko proposamena luzatzen da:

1. atala:

2. paragrafoko testu hau ezabatu: "gehieneko kopuru banakatua 600 euro izanik"

2. atala:

Azken aurreko paragrafotik "laurdena" testua ezabatu.

Azken paragrafoan, honako zenbateko hau aldatu: 1.500,00 eurotik 3.000,00 eurora.

3. atala:

2. paragrafotik ondorengo testua ezabatzea: "Kontu hauek emango dira gehienez hilabeteko epean aurrerakina eman den egunetik kontatzen hasita, eta beti ere,".

Eta azken paragrafo bat erantsi:

"Kutxako aurrerakina berritu ahal izango da aurreko likidazioa aurkeztu ondoren, baldin eta zenbateko horrek ez baditu gainditzen gastu horiek aplikatuko diren aurrekontu-partidako kredituak."

4. atala:

Atala ezabatu.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, eta Jose Mari Villanueva Telleria, Kristina Pelaez Errazkin, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amundarain Eskisabel.

Hau dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena: 2020. urteko Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 37. artikulua onartzea. Honela gelditzen delarik.



37. artikulua – Kutxa finkoko aurrerakinak.

1.- Inguruabarrek hala justifikatzen dutenean, ireki ahal izango dira eskudiruzko kutxak edo kontuak finantza-entitateetan departamentuentzako, honela izendatuta: “Tolosako Udala”, “... Departamentua”.

Kutxa finkoko aurrerakintzat hartuko dira aurrekontuz kanpoko fondo-hornikuntza iraunkor batzuk, zeinak egiten baitzaizkie ordaindegiei, kutxei eta gaikuntzei berehalako arretarako, eta erabiltzen baitira urteko aurrekontuaren geroko aplikaziorako, ohiko arreta aldizkako edo errepikakorretarako gastuak sartzen dira hor, besteak beste, dietak, bidaiagastuak, ibilgailuen ikuskapen teknikoak, bulegoko material inbentariaezina, artapena, ordezeko piezak eta antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk.

2.- Kutxa finkoko aurrerakinen izaeraz egin ahal izango dira fondoan hornidurak, kontuhartzaitzak proposatutako gaituen alde, ondoren aipatzen diren gastu hauei aurre egiteko:

- Konponketak eta zainketa (materiala eta konponketa txikiak), 211-212-213 kontzeptuak.
- Material arrunta ez- inbentariagarria (bulegokoa eta bestelako materiala), 220 eta 221 kontzeptuak.
- Dietak. Lokomozio gastuak eta beste kalte-ordain batzuk (230-231 kontzeptuak).
- Gastu txiki batzuk babes zibilerako (partida: 0400.226.99.135.10).
- Jabetza erregistroa, 226.04 kontzeptua.
- Bestelako gastuak, 226.99 kontzeptua.

Alkateak baimenduko ditu, eta zenbatekoak ezin izango du gainditu, kutxa finkoko aurrerakinen bidez finantzatzen diren gastuak aplikatuko zaizkion aurrekontu-partidako kredituen zenbatekoa.

Aurrerakin bakoitzaren kopurua ez da 3.000,00 euro baino handiagoa izango, salbuespenetan izan ezik.

3.- Diruzaintzako beharrek fondoak berriz jartzeko eskatzen duten heinean, baimenduek kontuak emango dituzte Diruzainaren aurrean; gero Diruzainak adostu eta Diruzaintzara bidaliko ditu ikuskatu daitezten. Alkateak baimenduko ditu kontu horiek.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek jasotako aurrekinen kontua eman beharko dute udal Kontuhartzaitzaren aurrean, egindako ordainketen kontabilitatea eta jatorrizko egiaztagiria aurkeztuta, abenduaren 15 baino lehen.



Kutxako aurrerakina berritu ahal izango da aurreko likidazioa aurkeztu ondoren, baldin eta zenbateko horrek ez baditu gainditzen gastu horiek aplikatuko diren aurrekontu-partidako kredituak.

Bigarrena: Jendaurrean jartzea hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu du** hasierako onarpena ematea aurrekontua gauzatzeko arauaren aldaketari.

7. 2019KO AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENIK GABEKO ORDAINAGIRIAK.

PartehartzeaK

... Alkateak proposamenaren azalpenak eman ondoren honako hau esan du: “*Azkenean ezinbesteko zerbitzuak eman behar ziren eta emandako dokumentazioaren arabera guztiz justifikatuta daude.*”

.. Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU): “*Dударik gabe zerbitzu horiek ordaindu behar dira, egindakoak direlako. Hori bai, bidea jarri behar dira zerbitzuak dagokien momentuan ordaintzeko. Izan ere, egoera administrazioki irregular xamarra da eta zerbitzua eman dutenentzat ere horrenbeste ordainketa luzatzea ez da zuzena eta badakin denok horretan ahaleginduko garela.*”

... Alkatea : “*Txostenetan garbi gelditu da aurreikusi ez zitekeen gertaera izaten dela, baina egia da, horrek kontsignaziorik gabeko fakturak izatea prozedura eta fiskalizazio eta neurri zorrotzak ekartzen dituela eta ahal den neurrian behintzat urtean bertan hartu beharko lirateke neurri horiek.*”



Alkateak proposamenaren azalpenak eman ditu:

Antolakuntza Batzordeko 2020ko maiatzaren 20ko irizpena.

AURREKARIAK

1.- AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENIK GABEKO GASTUEI DAGOZKIEN FAKTURAK

2019ko martxoaren 13an egindako txostenean, Udaleko behin-behineko kontuhartzaileak honako hau adierazi zuen:

GAIA: 2019ko kontsignaziorik gabeko gastuak

A) AURREKARIAK

Taula honetan zerrendatzen diren gastu batzuk benetan eman diren zerbitzuei dagozkie, baina gastu horiek egin dira aurrekontu arauak bete gabe, krediturik gabeko kontratazioak izan direlako.

Hirugarrena	Faktura	Data	Azalpena	Partida	Kopurua
Caser Residencial. S.A.U.	25	2020/1/16	Etkez etxeko zerbitzua abendua	0500.227.04.231.1 0	56.024,76
Ikuskizunak eta Logistika Molatu S.L.	8	2019/10/2	Eta...Zer gehiago kontzertuaren zerbitzua	0800.226.06.334.1 0	812,13
Ikuskizunak eta Logistika Molatu S.L.	27	2019/11/28	Mar Ikuskizunaren zerbitzu teknikoak	0800.226.06.334.1 0	938,48
Ikuskizunak eta Logistika Molatu S.L.	40	2019/12/30	Zaintzak Aranburu Jauregian	0800.226.06.334.1 0	329,24
Eulen S.A.	3403088	2020/1/10	Samaniego hilabetearen erreformazua 2019	0900.227.01.323.2 0	13.981,86
Taxi Zerbitzua - J. Zelaia Ezenarro	698	2019/11/30	Azaroko zerbitzuak	0700.223.01.441.2 0	1.909,60
Taxi Zerbitzua - J. Zelaia Ezenarro	703	2019/12/30	Abenduko zerbitzuak	0700.223.01.441.2 0	1.918,40
Taxi Zerbitzua - Patxi Jauregi	190266	2019/11/30	Azaroko zerbitzuak	0700.223.01.441.2 0	1.885,40
Taxi Zerbitzua - Patxi Jauregi	200002	2019/12/31	Abenduko zerbitzuak	0700.223.01.441.2 0	1.376,10
Taxi Zerbitzua - Salinas	74	2019/12/31	Abenduko zerbitzuak	0700.223.01.441.2 0	1.324,40
Taxi Zerbitzua - Salinas	19/81	2019/11/30	Azaroko zerbitzuak	0800.226.06.334.1 0	1.692,90
Versión Digital	V.19.3985	2019/11/14	Cine Leidor - Doña Francisquita Liceu	0	435,60
				GUZTIRA	82.628,87

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 19.3 artikulua arabera, udalak hartutako erabaki eta egintzen bitartez hartutako gastu konpromisoak baimendutako kredituen zenbatekoa baino gehiagokoak badira, zuzenbide osoko baliogabetasuna izango dute.

Horregatik egiten da erreparo hau.



2.- TEKNIKARIEN TXOSTENAK

Erreparoa aurkeztu ondoren, eragindako zerbitzuen arduradunek txosten hauek aurkeztu dituzte:

- Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak etxez etxeko laguntzako zerbitzuari buruzko txostena aurkeztu zuen 2020ko martxoaren 18an.
- Udaltzainburuak landa eremuko taxi zerbitzuari buruzko txostena aurkeztu zuen 2020ko martxoaren 30ean.
- Kultura, Festak eta Gazteria Saileko arduradunak bi txosten egin zituen, Molatu SL eta Versión Digital enpresek aurkeztutako fakturei buruzkoak.

Txosten guztietan onartzen da ordainagiritan jasotako zerbitzuak eman direla, nahiz eta aurrekontu-izendapenik ez izan.

3.- ADMINISTRAZIO PROZEDURAK

Eragindako teknikariek azaldutakoa kontuan hartu ondoren, Udalean izapidetu eta izapidetzen ari diren espedienteak aztertu dira, eta egoera honako hau da:

1.) CASER RESIDENCIAL, SAU: Lizitazio publikoa jarraitu ondoren, Udalak eta aipaturiko enpresak etxez etxeko zerbitzua emateko kontratua izenpetu zuten 2018ko apirilaren 20an. Kontratuaren iraupena bi urtekoa zen, eta beste bi urtez luza zitekeen. Kontratuaren luzapena izapidetzeko tramitezko egintza guztiak burutu dira, (eta hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean (17/2020 Errege Lege Dekretuak, maiatzaren 5ekoak, sektore publikoko kontratazioetako epeen etenaldia altxa ondoren). *2020ko maiatzaren 19an egindako Tokiko Gobernu Batzarrek, kontratuaren luzapena onartzea ebatzi du.*

Kasu honetan, Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak adierazi du 2018ko abenduko zerbitzuari zegokion faktura 2019ko aurrekontuari atxiki zitzaioela —orduko kontuhartzailearen gomendioz—, eta “2019ko etxez etxeko zerbitzuaren partidaren kargura behar baino hilabete gehiago fakturatu direla”. Ondoren, Saileko arduradunak zehaztaperen guztiak eman ditu bere txostenean emandako orduei, izandako sarrerei eta egindako gastuei buruz.

2.) IKUSKIZUNAK ETA LOGISTIKA MOLATU, S.L. enpresaren kasuan, bi lizitazio jardunbide izapidetu ditu Udal honek xede hau duen kontratua esleitzeko. Aurrenekoa hasi zen 2019ko abuztuaren 9an emandako dekretu baten bitartez, baina atal honetan aipaturiko enpresak aurkeztutako helegitearen ondorioz, deuseztatua izan zen, Kontratuen Inguruko Administrazio Organoak 2019ko azaroaren 12an emandako ebazpenaren ondoren. Organo horrek azaldutako irizpideak kontuan hartuz, bigarren lizitazioari hasiera eman zitzaion 2019ko abenduaren 12an emandako dekretu baten bitartez, eta oraindik ez da amaitu. Izan ere, martxoaren 13ko 463/2020 Errege Dekretuak aitortu zuen alarma egoerak administrazio prozedura guztien etendura ekarri zuen.



TOLOSAKO
UDALA

Sektore publikoko kontratuen kasuan, lizitazio prozedurak jarraitzea ahalbidetu du maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Zortzigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera. Une honetan, aurkeztutako eskaintzen balorazioak amaitu dira, eta Kontratazio Mahaiak proposatu behar dio Kontratazio Organoari kontratuaren esleipena.

3.) EULEN, SA enpresak, udal jabetzako eraikinen garbiketa zerbitzua betetzen du, 2017ko otsailaren 1ean, Tolosako Udaleko alkateak eta Eulen, S.A. enpresaren ordezkariak kontratua izenpetu ondoren. Kontratu hori esleitzeko, lizitazio publikoko jardunbidea garatu zen.

Udal kontuhartzaileak adierazi duen ordainagiriari dagokionez, azpimarratu beharra dago 2018. urtean, kontratistak, Udalaren aginduei jarraituz, kontratuaren prestazioak aldatu zituela. Hala ere, aldaketa horiek egiteko ez zen inolako espedienterik izapidetu, eta horren ondoren, dokumentatu gabeko aldaketa horiekin zerikusia zuten ordainagiriak ez ziren ordaindu.

2019ko urtarrilaren 17an, udal kontuhartzaileak zegokion txostena igorri zuen eta bertan hau aipatzen zuen:

La adjudicación en 2017 se realizó por importe de 445.684,97 conforme consta en la primera de las columnas. A pesar de ello se ha detectado que en 2018 se ha reducido la prestación del servicio en el Ayuntamiento y en E.P.A. sin que se haya tramitado modificación alguna del contrato.

Además de ello en octubre del 2018 el Ayuntamiento de Tolosa traspasó la gestión de los frontones de Uzturpe y Beotibar a Tolosa Lantzen, S.A. sin que se hayan dejado de recibir facturas por la prestación de servicios en dichas instalaciones y que constan con el visto bueno del técnico correspondiente, no siendo prestaciones que se deban de realizar al Ayuntamiento de Tolosa:

...

Deberán aclararse las diferencias existentes sobre el servicio adjudicado y el realmente prestado y tramitarse la correspondiente modificación del contrato en su caso.

Asimismo deberá aprobarse la revisión de precios correspondiente una vez finalizada la aplicación de las cláusulas cuarta y decimonovena.

2020ko urtarrilaren 21ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki zuen erreferentzian aipatutako kontratua luzatzea, honako ohar hauekin: **Hirugarrena.-** *Kontratuaren luzapenean prezioa berrikustea ez da orain erabakiko, aurrekarietan azaldutako gorabeherak argitu behar baitira eta horiek erregularizatu egin beharko dira dagokion jardunbideari jarraituz.*

Beraz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakitakoa betetzeko, Obra eta Zerbitzuak, Kontuhartzaileak eta Kontratzioko sailek jardunbide bat egin dute 2020. urtean, egoera hau erregularizatzeko.



Hona hemen Kontratazioko teknikariak, 2020ko urtarrilaren 28an egindako txostenean, adierazi zuena:

1.- Araubide juridikoa

Kontratuaren aldaketari dagokionez, administrazio baldintza partikularren pleguaren 22. klausulak sektore publikoko kontratuen legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretura bidaltzen gaitu; beraz, esan daiteke aurreikusitako aldaketarik ez dagoela. Horrenbestez, SPKLTBren 107. artikuluan xedatutakoa izan behar da kontuan:

Artículo 107. Modificaciones no previstas en la documentación que rige la licitación.

1. Las modificaciones no previstas en los pliegos o en el anuncio de licitación solo podrán efectuarse cuando se justifique suficientemente la concurrencia de alguna de las siguientes circunstancias: a) Inadecuación de la prestación contratada para satisfacer las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato debido a errores u omisiones padecidos en la redacción del proyecto o de las especificaciones técnicas. b) Inadecuación del proyecto o de las especificaciones de la prestación por causas objetivas que determinen su falta de idoneidad, consistentes en circunstancias de tipo geológico, hídrico, arqueológico, medioambiental o similares, puestas de manifiesto con posterioridad a la adjudicación del contrato y que no fuesen previsibles con anterioridad aplicando toda la diligencia requerida de acuerdo con una buena práctica profesional en la elaboración del proyecto o en la redacción de las especificaciones técnicas. c) Fuerza mayor o caso fortuito que hiciesen imposible la realización de la prestación en los términos inicialmente definidos. d) Conveniencia de incorporar a la prestación avances técnicos que la mejoren notoriamente, siempre que su disponibilidad en el mercado, de acuerdo con el estado de la técnica, se haya producido con posterioridad a la adjudicación del contrato. e) Necesidad de ajustar la prestación a especificaciones técnicas, medioambientales, urbanísticas, de seguridad o de accesibilidad aprobadas con posterioridad a la adjudicación del contrato.

Kasu honetan, e) idatz-zatian aurreikusitakoa beteko litzateke, hau da, prestazioa kontratua esleitu ondoren onartutako espezifikazio teknikoetara, ingurumenekoetara, hirigintzakoetara, segurtasunekoetara edo irisgarritasunekoetara egokitzeko beharra.

Lizitazio-prozedura arautzen zuten Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan, udal eraikin guztien zerranda bat agertzen zen eta, horien arabera, lizitatuzaileek euren eskaintza egin behar zuten. Horiek horrela, eta "Metodología Activa" izeneko planak hezkuntzan txertatzearen ondorioz, beharrezkoa ikusi zen 2018. urtean, Samaniego ikastetxean lan-ordu gehiago sartzea. Halaber, Oriaburu eraikinean ere lan-orduak sartzeko beharra sortu zen, itxirik zegoen eraikina birgaitu eta coworking-gune bat sortu baitzen bertan. Horrek behar berri batzuk sortu zituen, eta horiek ezin izan ziren pleguetan aurreikusi, alde batetik, irakaskuntzan sortu diren aldaketengatik, eta, bestetik, berriz, behar urbanistiko berriak sortu baitziren.



Aipatutako aldaketa horiek ez zuten ekarri kontratu osoaren lan-orduetan aldaketa, Uzturpe eta Beotibar frontoietan egiten ziren lan-orduak murriztu egin baitziren. Aldaketa hori 2018an egindako lizitazioaren ondorio izan zen; horren ondorioz, Udalak zuzenean kudeatzen zituen bi kirol-instalazio horiek hirugarren enpresa batek kudeatzera pasa ziren, eta horietan egiten den garbiketa ere enpresa honek bere gain hartu zuen. Horrenbestez, hemen egiten ziren lan-orduak aipatutako Samaniego eta Oriaburu eraikinetan konpentsatu ziren.

Jarraian azaltzen diren tauletan aipatutako aldaketak ikus daitezke:

Udaletxean, 2017ko urtarrileko faktura ez da kontuan hartu behar, kontratu zahar batetik baitator zenbateko hori. Halaber, otsaila-apirila bitarteko fakturen zenbatekoak 5.536,61 eurokoa izan beharrean 4.383,16 eurokoa izan beharko luke. Hori guztia konpondu zen eta horregatik azaltzen da 8.074,26 euroko zenbatekoa. Beraz, 2017ko zenbatekoa 58.166,45 eurokoa izango litzateke.

.....

EPA eraikinean, 2017ko urtarrileko faktura ez da kontuan hartu behar, kontratu zahar batetik baitator zenbateko hori. Halaber, otsaila-apirila bitarteko fakturen zenbatekoak 1.122,40 eurokoa izan beharrean 935,33 eurokoa izan beharko luke. Hori guztia konpondu zen eta horregatik azaltzen da 1.309,49 euroko zenbatekoa. Beraz, 2017ko zenbatekoa 12.051,50 eurokoa izango litzateke.

.....

Samaniego ikastetxean, 2017ko urtarrileko faktura ez da kontuan hartu behar, kontratu zahar batetik baitator zenbateko hori. Halaber, 2018. urteko fakturen zenbatekoa 7.389,62 eurokoa izan da. 2019. urteko kopuruak (ordaindu gabe daudenak) 7.449,22 eurokoak dira.

Aurrekoaz gain, hilero 2.441,14 euroko faktura gehigarriak iritsi dira 2019. urtean. Horien arrazoia da, lehen esan bezala, "Metodología Activa" izeneko planak hezkuntzan txertatu izana, eta beharrezkoa ikusi zen 2018. urtean Samaniego ikastetxean lan-ordu gehiago sartzea.

.....

Beotibar frontoian, aipatu bezala, 2018. urtearen bukaeran garbitzeari utzi zitzaion, esleipen baten ondorioz udal kiroldegiak kudeatzen zituen enpresak, bai Beotibar, bai Uzturpe frontoien garbiketa bere gain hartu baituen. Beraz, hilero 1.763,83 euro aurrezten dira Beotibar frontoian eta 952,50 euro, Uzturpe frontoian.

.....

Aurreko datu guztiak aintzat harturik, eta jarraian agertzen den koadroan islatzen den bezala, argi ikus daiteke eraikin batzuetan gutxitu diren lan-orduak, eta horiek prezioan izan duten eragina, beste eraikin batzuetako lan-orduen gehikuntzarekin konpentsatu direla; hau da, kontratuaren zenbatekoa ez da aldatu, lan-orduak eraikin berrien beharretara berrantolatu baizik. Halaber, ikus daiteke Samaniego eraikineko 2019. urteko fakturak ez direla ordaindu eta horien zenbatekoa 114.141,69 eurokoa dela: horietatik zati bat (89.521,32 euro), faktura arruntak dira; beste zati bat (29.293,66 euro), lan-orduen gehikuntzatik dator; hirugarren zati bat (2.716,33 euro), garbiketa berezi batengatik dator; eta azken zati negatibo bat (7.389,62 euro), 2019. urtean ordaindutako fakturatik dator eta, beraz, kendu beharrekoa da.



TOLOSAKO
UDALA

.....

Udal kontuhartzaileak bere adostasuna adierazi zuen, bai kontratuaren luzapenarekin, baita Kontratazio teknikariak egindako txostenarekin. Beraz, tramitazio hori amaitu egin behar da, alegia, kopuruak zehaztu eta udal organoak ebatzi.

Etkez etxeko laguntzako zerbitzua eta eraikinak garbitzeko zerbitzua administrazio kontratupean ematen dira, eta bietan kontratazio organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, Alkatetzaren delegazioz.

Landa eremuko Taxi zerbitzuak ez du inolako araudirik, edo kontraturik, eta kultur zerbitzuen kasuan, une honetan 2. lizitazioa amaitzeaz dago, Kontratu Helegiteak ebazteko, lehenengo lizitazioa Euskadiko Organo Administratiboak bertan behera utzi eta gero.

Txosten honen xedea da aztertzea gastu horien araubide juridikoa, eta aplikagarri zaien prozedura.

4º) Taxi zerbitzuari dagokionez, orain arte ez du izan inolako araudirik. Lehenik eta behin, argitu behar da faktura hauen xedearen izaera juridikoa, hau da, zerbitzu bat den edo landa eremuetako herritarrek jasotzen duten laguntza den. Aurreneko kasuan, zerbitzua eman aurretik, arautu beharko litzateke Erregelamendu baten bitartez (9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 312^a) artikuluan xedatutakoaren arabera: *a) Antes de proceder a la contratación de un servicio de esta naturaleza deberá haberse establecido su régimen jurídico, que declare expresamente que la actividad de que se trata queda asumida por la Administración respectiva como propia de la misma, determine el alcance de las prestaciones en favor de los administrados, y regule los aspectos de carácter jurídico, económico y administrativo relativos a la prestación del servicio*). Behin arautu eta gero, lizitazio publikoaren bidez esleitu beharko litzateke, zerbitzu hau era jarraituan ematen dela kontuan hartuz.

Hala ere, beste herrietako arauak ikusirik, kasu gehienetan landa eremuko taxia herritarrentzako laguntza gisa arautzen da, kontuan hartuz zerbitzu honen onuradunak direla landa eremuetan bizi diren eta mugikortasun arazoak dituzten herritarrak.

Egoera aztertuta, Lurraldea Eremuko Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko Azpisailak **UDALERRIAN LANDA-TAXI ZERBITZUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK** onartzeko espedientea abian jarri du, eta Oinarri horien zirriborroa prestatu du, laguntza horiek arautuak izan daitezzen. Ordenantzaren onespena ezinbestekoa da jarduera hau emateko.

4.- AZTERKETA JURIDIKOA

Behin-behineko kontuhartzaileak bere txostenean adierazten duen moduan, txosten honetan agertzen diren ordainagirik nahikoa kontsignaziorik ez dute 2019ko aurrekontuetan.



TOLOSAKO
UDALA

Kasu honetan, honako legeria hau izango litzateke aplikagarria:

1. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
2. 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Erkidea arautzen duena (47.1 eta 106. artikulua).
3. 7/1.985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

Laburki, hemen azalduko dira idazkari honek formulatzen duen Ebazpen proposamenaren oinarri nagusiak:

1. 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 4. artikuluan xedatzen du Toki Entitateen Aurrekontuen Urtekotasunaren printzipioa, eta honako hau adierazten du: *Ekitaldi ekonomikoa edo aurrekontu-ekitaldia bat etorriko da egutegiko urtearekin.*

Halaber, 5.2 artikulua, Aurrekontuaren Orokortasunaren printzipioa arautzerakoan, Foru Arauak honela xedatzen du: *Eskubide edo betebeharrak ekonomikoak sortzen dituzten eragiketa guztiek aurrekontuan agertarazi behar dira. Aurreikusitako gabeko eragiketak aurrekontuaren betetzerazpidearen barruan erregistratuko dira, kasuan-kasuan aplikatu beharreko arauari lotuz.*

Kasu honetan, kontuhartzailearen txostenean jasotako ordainagirik islatzen dituzten gastuek ez dituzte betetzen printzipio horiek. Alde batetik, gastu edo obligazio horiek ez zeuden jasota 2019ko aurrekontuan, eta, arrazoi horrengatik, 2019ko urtea iragan ondoren bete behar dira.

2. Txosten honetan aipatzen den 21/2003 Foru Arauak, 39. artikuluan, gastuak exekutatzeko printzipio orokorrak xedatzen ditu:

- a) *Jarraiko administrazio kontrolaren abiaburua, prozeduraren egintza osatzaile guztiak, aurretiko eragiketak zuzen bete diren egiaztatu ondoren, gauza daitezten.*
- b) *Prozeduraren eragiketa osatzaile guztien, bai eta frogatu beharreko igorpenen, agiri bidezko frogapenaren abiaburua.*
- c) *Erantzuleek eragiketak beteak dituztela idatziz agertu behar diren abiaburua*

Udal kontuhartzaileak bere txostenean azaltzen duenaren arabera, ordainagiri horiek islatzen dituzten gastuek kontrolik gabe egin dira, eta haien izapidetzeak Foru Arauaren 67. artikuluan xedaturikoa urratu du.

Idazkari hau bat dator Kontuhartzaileak adierazitakoarekin, VERSION DIGITAL enpresak egindako ordainagiria salbu, azken hori kontratu txikia denez, aurretiazko fiskalizaziorik ez



du behar eta. Baina honek ez du esan nahi diru-izendapenik gabe egin daitekeenik, inolaz ere ez.

3. Foru Arauaren 19.3 artikulua aurrekontu-izendapenik gabe egiten diren gastuen erabateko deuseztasuna xedatzen du: *3.- Toki administrazioak ematen dituen erabaki, xedapen, ebazpen eta egintzek, beraien bitartez gastuen orrian baimendutako muga izaerako kredituen zenbatekoa baino gehiagoko zenbatekoko gastu-konpromisoak eskuratu nahi direnean, zuzenbide osoko baliogabetasuna izango dute, sortzen diren erantzukizunei kalte egin gabe.*

4. Horretaz gain:

- Ikuskizunak eta Logistica Molatu, SL enpresak egindako ordainagirian jasotako prestazioak aldizkakoak eta iraunkorrak dira, eta ezin dira bideratu kontratu txiki baten bitartez. Beraz, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 118. artikuluan xedaturikoa urratu da, eta, halaber, hitzezko kontratazioak debekatzen dituen araua, 37.1 artikuluan araututakoa. Gainera, ordainagiri horietan jasotako prestazioak aurrekontu-izendapenik gabe egin ziren.
- Eulen SArekin Udalak duen kontratuaren aldaketa egikaritu zen inolako espedienterik gabe, ondoren erregularizatu arte. Gainera, ordainagiri horietan jasotako prestazioak aurrekontu-izendapenik gabe egin ziren.
- Landa eremuko taxi zerbitzuari dagozkion gastuak, dirulaguntzak badira, inolako ordenantza edo oinarririk gabe gauzatu dira. Zerbitzu kontratutzat hartu badira, ez dago inolako araudirik, ezta lizitaziorik ere. Gainera, ordainagiri horietan jasotako prestazioak aurrekontu-izendapenik gabe egin ziren.
- Versión Digital Enpresarekin egindako kontratu txikiak ez zuen aurrekontu-izendapenik ordainagiria aurkeztu zenean.

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 39.2.b) artikuluan honako hau xedatzen du: *2. Serán igualmente nulos de pleno derecho los contratos celebrados por poderes adjudicadores en los que concurra alguna de las causas siguientes:.....b) La carencia o insuficiencia de crédito, de conformidad con lo establecido en la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria, o en las normas presupuestarias de las restantes Administraciones Públicas sujetas a esta Ley, salvo los supuestos de emergencia .*

5. Aurreko paragrafoetan aipatu diren arrazoiak kontuan hartuta, ordainagiri horiekin lotutako egintzak (edo prozedura eza) erabat deusezak dira, 21/2003 Foru Arauaren 19.3 artikuluan (aipatu dena) xedaturikoa, 9/2017 Legean xedaturikoa, eta 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duenak, 47.1.e) eta g) artikuluan xedatutakoaren arabera (*Administrazio publikoen egintzak erabat deusezak izango dira kasu hauetan:.....e) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz; g) Lege-mailako xedapen batean espresuki halakotzat jotako beste edozein.*



Udaleko kontuhartzailearen txostenean eta teknikarien txostenetan jasotzen diren ordainagirietan, gastuak baimendu eta xedatu dira, eta obligazioak onartu eta likidatu dira inolako jardunbiderik jarraitu gabe. Horiek egintza administratiboak —edo egintzarik eta prozedurarik eza, hobeto esanda—, izango lirateke, eta beraiek sorturiko obligazioak erabat baliogabeak.

6. Kasu hauetan, 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du 106. artikuluan:

1. *Administrazio publikoek, noiznahi, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, deuseztat deklaratu dituzte, ofizioz, administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 47.1 artikuluan jasotako kasuetan.*

2.

3.

4. *Administrazio publikoek, xedapen edo egintza bat deuseztat deklaratzeko ebazpenean, zehaztu dezakete zer kalte-ordain jaso behar duten interesdunek. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32.2 eta 34.1 artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badira, hargatik eragotzi gabe, xedapena denean, xedapen horren ondorioz emandako egintza irmoek irautea.*

5. *Prozedura ofizioz hasia denean, hasi denetik sei hilabeteko epea betetzen bada ebazpenik eman gabe, iraungi egingo da prozedura. Interesdunak eskaturik hasten denean, berriz, administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo daiteke.*

7. Erreparatutako ordainagirien kasuan, txostenak eman dituzten teknikari guztiek adierazi dute ordainagirietan azaltzen diren zerbitzuak eta prestazioak benetan eman dituztela aipatutako pertsonak eta enpresek. Kontuan hartu behar da Epaimahai Gorenak, horrelako kasuetan (diru-izendapenik gabe, kontraturik gabe, edo hitzarturiko kontratutik at egindako gastuen kasuetan), beste arrazoi batzuk ematen dituela justifikatzeko administrazioak duen ordaintzeko betebeharra. Betebehar hori ez da oinarritzen inolako kontratu, hitzarmen edo administrazio prozeduratan, baizik eta bidegabeko aberastearen aurkako printzipioan, edo administrazioaren erantzukizun patrimonialean. Hona hemen gai honi buruz emandako epai batzuk:

1) 41/2016 Epaia, 2016ko otsailaren hemeretzikoa, Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiak emana: *La falta de crédito presupuestario es causa de nulidad como recuerda, entre otras muchas la sentencia del Tribunal Supremo de 8 de junio de 2004 : "no pueden adquirirse compromisos de gastos por cuantía superior al importe de los créditos autorizados en los estados de gasto, siendo nulos de pleno derecho los acuerdos, resoluciones y actos administrativos que infrinjan esta norma e igualmente son nulos de pleno derecho los actos de adjudicación de contratos que carezcan de consignación presupuestaria ". O la sentencia del Tribunal Supremo, Sala 3ª, Sección 6ª de 24 de Septiembre. 1992, Ponente: Sr. Goded Miranda): "La nulidad de los acuerdos de las*



TOLOSAKO
UDALA

Corporaciones y resoluciones de Autoridades Municipales y Provinciales que habiliten gastos que no tengan crédito suficiente para satisfacerlo..."

.....

Pues bien, considera el juzgador que no es cierto que la declaración de nulidad del acto administrativo sea la causa del daño alegado por el recurrente. El recurrente celebró un contrato administrativo con la demandada para la prestación de un servicio, y, además, afirma, se realizaron una serie de "prestaciones adicionales y complementarias" que le supusieron un coste y que no han sido abonadas. La causa del perjuicio es, por ende, la falta de pago de las mismas, pero no la anulación de un acto que reconoce extrajudicialmente un crédito. Ese acto podría haber sido la base con la cual se habría abonado los costes, y podría haber sido parte de un proceso que hubiera sufragado los mismos, pero no es la causa del perjuicio; piénsese que si el acto hubiera sido válido, o no se hubiera acordado la revisión, el recurrente hubiera seguido sufriendo unos costes, e igualmente seguiría sin haber cobrado realmente lo reclamado; hubiera sido necesario ejecutar ese acuerdo hasta el completo pago. Por lo tanto ese acto es un momento importante del proceso de cobro, pero no es la causa del perjuicio ni el pago mismo. Efectivamente la actora tiene derecho a cobrar las cantidades que le puedan ser debidas, pero para ello debe acreditar que se ha realizado una prestación de servicio y que el mismo no ha sido satisfecho, bien con la base del derecho contractual bien con la del enriquecimiento injusto,

...

2) 2008ko apirilaren 28an Epaimahai Gorenak emandako Sententziak honako hau xedatzen du: "CUARTO.- En la STS de 21 de marzo de 1991 se afirma que "el enriquecimiento sin causa viene a corregir situaciones de total desequilibrio, en relaciones que, carentes de ropaje jurídico, materialmente han existido produciendo beneficios concretos en una de las partes, a costa de la otra. Con ello se originan unos efectos sin causa -enriquecimiento y empobrecimiento- al no venir respaldados por las formas exigidas en el régimen administrativo. Mas estos efectos, sin causa, por la forma, se convierten en determinantes de la causa que los corrige y repara".

Y recordábamos en nuestras sentencias de 18 de diciembre de 2007, recurso de casación 11195/2004 , 2 de octubre de 2006, recurso de casación 1232/2004 y 20 de julio de 2005, recurso de casación 1129/2002 , la doctrina del enriquecimiento injusto que pudiera derivar de la ejecución de una obra para la Administración y del equilibrio económico que debe mantenerse en el cumplimiento del contrato a que se refiere la sentencia de esta Sala de 25 de febrero de 1991 , siguiendo lo vertido en las de 20 de diciembre de 1983 y 2 de abril de 1986 , significa la exigibilidad por el contratista del pago del exceso de obra necesario para completar el proyecto.

O en términos de la sentencia de 18 de julio de 2003 el desequilibrio ha de estar constituido por prestaciones del particular que no se deban a su propia iniciativa ni revelen una voluntad maliciosa del mismo, sino que tengan su origen en hechos, dimanantes de la Administración pública, que hayan generado razonablemente en ese



TOLOSAKO
UDALA

particular la creencia de que le incumbía un deber de colaboración con dicha Administración.

Así se ha admitido tal doctrina en el ámbito de los contratos de obras en modificaciones ordenadas por el Director Técnico del Proyecto con el consentimiento tácito o expreso de la administración afectada (20 de diciembre de 1983, 2 de abril de 1986, 11 de mayo de 1995, 8 de abril de 1998) o modificaciones ordenadas por el Director no contempladas en el Proyecto pero, en general, ajustadas a las circunstancias previstas en su desarrollo (sentencias de 12 de febrero de 1979 , 12 de marzo de 1991 , 4 de marzo de 1997), u obras efectivamente realizadas por el contratista y que fueron efectivamente ejecutadas con pleno conocimiento y consentimiento del Equipo Técnico Municipal sin objeción alguna (sentencia de 22 de noviembre de 2004, recurso de casación 4574/2001).

Incluye también una prórroga de un contrato no pactada aunque si prestada de buena fe por la contratista siguiendo ordenes de la administración (sentencia de 13 de julio de 1984) así como un pago a un subcontratista a consecuencia de una subcontrata con consentimiento tácito de la administración en que hubo incumplimiento contractual por ambas partes contratantes.

Y también el exceso de obra realizado y que estuvo motivado por una iniciativa de la propia Administración sin que esta hubiere cuestionado su importe (sentencia de 11 de julio de 2003, recurso de casación 9003/1997)

Asimismo, sin perjuicio de la eventual responsabilidad de las autoridades y funcionarios de un Ayuntamiento que contrató de forma ilegal unas obras de pavimentación, se ha aceptado deberían ser pagadas para no producir enriquecimiento injusto del Ayuntamiento, contrario a la justicia distributiva y a la necesidad de restablecerla, a lo que está obligado este Tribunal. (STS 24 de julio de 1992, recurso de apelación 4011/1990)"

8. 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duenak, 32. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan, honako hau xedatzen du, eta garatzen du indarrean dagoen Konstituzioaren 106.2 artikuluan xedaturikoa: *1. Los particulares tendrán derecho a ser indemnizados por las Administraciones Públicas correspondientes, de toda lesión que sufran en cualquiera de sus bienes y derechos, siempre que la lesión sea consecuencia del funcionamiento normal o anormal de los servicios públicos salvo en los casos de fuerza mayor o de daños que el particular tenga el deber jurídico de soportar de acuerdo con la Ley.*

La anulación en vía administrativa o por el orden jurisdiccional contencioso administrativo de los actos o disposiciones administrativas no presupone, por sí misma, derecho a la indemnización.

2. En todo caso, el daño alegado habrá de ser efectivo, evaluable económicamente e individualizado con relación a una persona o grupo de personas.

Beraz, kasu honetan, ordainagirietan jasotzen diren onartutako gastu betebeharren erabateko deuseztasuna aitortzearekin batera, horiek ordaintzeko betebeharra aitortu



TOLOSAKO
UDALA

LAUGARRENA: EUDELen bidez modu orokorrean erkidegoan neurriak hartzeko proposamenak emaitzarik ez balu, Tolosako udaleko korporazioak EZ du soldataren urteko igoera aplikatuko eta diru hori COVID19aren eraginez sortutako egoerei aurre egiteko bideratuko da.”

9. ALKATETZA DEKRETUAREN BERRI EMATEA: TOLOSAKO UDALAREN ALOKAIRU PUBLIKOKO ETXEBIZITZA PARKEAN BIZI DIREN ETA COVID-19 PANDEMIAREN ONDOREN ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDEN MAIZTERREI, ALDI BATERAKO ALOKAIRUA ETA KOMUNITATE GASTUAK ORDAINTZETIK SALBUESTEA XEDEA DUTEN OINARRIAK ALDATZEA.

2020/0648 Alkatetza dekretuaren berri eman die bertaratutakoei. Honela dio:

**ALKATETZA DEKRETUA
2020/648**

OLATZ PEON ORMAZABAL, Tolosa udaleko Alkate-Udalburuak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituenak, bere 21.1 eta 23.3 artikuluetan xedatzen duenaren arabera,

IKUSIRIK

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak, 2020ko martxoaren 31n, Agindu bat onartu zuen zeinaren bidez arautzen baitira alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan Covid-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko hainbat neurri. Agindu honen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, helburua da alokairu babestuko parke publikoan egoera ekonomiko kalteberan dauden errentariak alokairua eta komunitate-gastuak ordaintzetik ezohiko eta aldi baterako salbuestea.

Salbuespen horren onuradun izan ahalko dira EAEko etxebizitza-parke publikoetako etxebizitza baten errentamendu-kontratu baten titular diren pertsona guztiak, norberaren izenean edo errentakide gisa, baldin eta «kalteberatasun ekonomikoko» egoeran badaude. Halaber, zuzkidura-bizitokien emakidaren onuradunek ere baliatu ahal izango dute salbuespen hori.

Ildo horretan, Tolosako Udalbatzak, 2020ko apirilaren 17an eginiko Premiazko eta Aparteko Osoko Bilkuran, Udal Korporazioa osatzen duten kideen partaidetzarekin, aho batez, onartu zuen COVID19k sortutako kalteberatasun ekonomikoan dauden pertsonak Tolosako udalaren parke publiko babestuen alokairua eta komunitate gastuak aldi baterako ordaintzetik salbuesteko oinarriak.

Oinarrien bigarren puntuan jasota dagoenaren arabera, “Neurri hauek aplikagarriak izango dira Tolosako Udalak kudeatzen dituen alokairu publikoko etxebizitza parkean bizi diren maizterrei, Osasun-emergentziak eragindako krisialdiaren ondorioz langabezian edo, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean daudenei, baita langile autonomoak edo enpresaburuak izanik,



TOLOSAKO
UDALA

diru-sarreraren galera edo salmenten beherakada nabarmena —% 40 edo handiagoa— jasaten dutenei.

*Ondorio horietarako, **alokairu-errentaren eta erkidego-gastuen eta familia-unitateko kide guztiek jasotzen dituzten urteko diru-sarrera haztatuen %30 etik gorakoa izan beharko du.***

KONTUAN HARTURIK:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak, 2020ko apirilaren 30ean, Agindu bat onartu du Covid.19 birusak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

Aginduaren Azken Xedapenetako Lehenengoan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 31ko Agindua aldatzen da, hain zuzen ere, Aginduaren 4. Artikuluaren 3. Apartatua, eta honela idatzia geratzen da agindu berrian:

3.- Bi kasuetan, kalteberatasun ekonomikoa dagoela jotzeko, gainera, ordaindu beharreko errentaren zenbatekoa gehi komunitate -gastuak eta oinarrizko hornidurak errentarien edo bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren %30 baino gehiago izatea eskatzen da, babes ofizialeko etxebizitzetara buruzko araudiaren arabera kalkulatuta.

Komunitate-gastuak eta oinarrizko hornidurak, agindu honetan eskatutako kalkuluen ondorioetarako, hileko 79 euroan balioesten dira bizikidetzaren unitatea osatzen duen pertsona bakoitzeko edo, bestela, hileko 187,4 euroan etxebizitza bakoitzeko. Pertsonarentzat edo bizikidetzaren unitatearentzat onuragarriena den irizpidea aplikatuko da.

Honen inguruan adierazi nahi da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak, 2020ko apirilaren 30ean, onartutako Aginduak arautzen duen aldaketa honek, kalteberatasun-ekonomikoaren kontzeptuaren azterketa egokiago eta, batez ere, errealago bat ahalbideratzen duela; izan ere, errentaren eta komunitate-gastuen baturaren zenbatekoak osasun-larrialdiak eragindako maizterren egungo diru-sarrerekin alderatzea ahalbidetzen duelako, eta ez, krisialdiaren aurretik errentarietara jasotako urteko diru sarrera haztatuen kopuruarekin.

Horrenbestez, neurriaren garrantzia kontutan izanda, eta egokitzapenari berehalako indarraldia emateko, aldaketa Alkatearen premiatasunezko dekretu bidez egin daiteke, udalbatzari berehala jakinaraziz. Horrela xedatzen du 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 21. Artikuluaren baitan, "Alkatea da udalbatzako buru da eta eskumen hauek ditu m) Herri-hondamendi edo ezbeharretan nahiz horiek gertatzeko arrisku larria dagoenean, bere buruz eta bere ardurapean, neurri egoki eta beharrezkoak hartzea, eta osoko bilkurari berehala jakinaraztea"

Horiek horrela, aurretik azaldutakoaren baitan, Alkatetza honek ondoko hau

ERABAKI DU

***Lehenengoa.**- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak, 2020ko apirilaren 30ean onartutako aginduaren Azken Xedapenetako Lehenengoan jasotakoarekin bat egitea eta Udalbatzak apirilaren 17an Covid-19 birusaren inaktu ekonomikoari erantzuna emateko onartutako oinarrien bigarren puntuaren bigarren paragrafoa aldatzea. Honela idatzia geratzen da:*



TOLOSAKO
UDALA

3.- Bi kasuetan, kalteberatasun ekonomikoa dagoela jotzeko, gainera, ordaindu beharreko errentaren zenbatekoa gehi komunitate -gastuak eta oinarrizko hornidurak errentarien edo bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren %30 baino gehiago izatea eskatzen da, babes ofizialeko etxebizitzetako buruzko araudiaren arabera kalkulaturik.

Komunitate-gastuak eta oinarrizko hornidurak, agindu honetan eskatutako kalkuluen ondorioetarako, hileko 79 euroan balioesten dira bizikidetzaren unitatea osatzen duen pertsona bakoitzeko edo, bestela, hileko 187,4 euroan etxebizitzaren bakoitzeko. Pertsonarentzat edo bizikidetzaren unitatearentzat onuragarriena den irizpidea aplikatuko da.

Bigarrena.- Neurriaren garrantzia kontutan izanda, eta egokitzapenari berehalako indarraldia emateko, aldaketa Alkatearen premiatasuneko dekretu bidez egitea, udalbatzari berehala jakinaraziz.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea alderdi interesdunei eta Kontu-hartzailetzako Sailari

Laugarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udaleko web orrian argitaratzea.

Agindu eta izenpetzen duena Alkate-Udalburuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, 2020ko maiatzaren zortzian

ALKATEAK

**Nire aurrean
IDAZKARIAK**

OLATZ PEON ORMAZABAL

BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

10. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA:

Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatuak azalpenak eman ditu.

- 2020/643 ALKATETZA DEKRETUA, 1/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA, KREDITU TXERTAKETA MODALITATEAN

2020/643 Alkatetzak dekretuak honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA 2019/ 643

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen, kreditu txertaketaren modalitatekoa, 2020-KALD-000001-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzailearen txostena, ziurtagiriak eta onarpen proposamena.



TOLOSAKO
UDALA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2020-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbateko a
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	75.495,85
6	INBERTSIO ERREALAK	70.843,03
TXERTATUTAKO GERAkinAK GUZTIRA		146.338,88

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	32.267,89
8	FINANTZA AKTIBOAK	114.070,99
FINANTZAKETA GUZTIRA		146.338,88

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Tolosa, 2020ko maiatzaren 7an

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.



TOLOSAKO
UDALA

**2020/646 ALKATETZA DEKRETUA, 2/2020 KREDITU ALDAKETARAKO
ESPEDIENTEARI DAGOKIONA, KREDITU TRANSFERENTZIEIEN MODALITATEAN.**

Alkatetzak kreditu aldaketaren inguruko dekretuaren berri eman die bertaratutakoei:

ALKATEAREN DEKRETUA

2020/ 646

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2020-KALD-000002-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 29. artikuluen 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	152.600,00	90.200,00	62.400,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKOAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	152.600,00	90.200,00	62.400,00



Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	59.400,00	90.200,00	149.600,00
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKOAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		59.400,00	90.200,00	149.600,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2020ko maiatzaren 7a

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

2020/670 ALKATETZA DEKRETUA, 3/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA, KREDITU TXERTAKETA MODALITATEAN.

Alkatetzak kreditu aldaketaren inguruko dekretuaren berri eman die bertaratutakoei:

ALKATEAREN DEKRETUA

• 2020/ 670

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2020-KALD-000003-00 zenbakiduna,



TOLOSAKO
UDALA

Ikusita Kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketan modalitatekoa, 2020-KALD-000003-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	329.849,42
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	231.605,29
6	INBERTSIO ERREALAK	1.659.454,61
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		2.220.909,32

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.962,50
8	FINANTZA AKTIBOAK	2.217.946,82
FINANTZAKETA GUZTIRA		2.220.909,32

Bigarrena.- *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.*

Tolosa, 2020ko maiatzaren 12a

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.



TOLOSAKO
UDALA

**2020/680 ALKATETZA DEKRETUA, 4/2020 KREDITU ALDAKETARAKO
ESPEDIENTEARI DAGOKIONA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.**

Alkatetzak kreditu aldaketaren inguruko dekretuaren berri eman die bertaratutakoei:

**ALKATEAREN DEKRETUA
2020/ 680**

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2020-KALD-000004-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	53.526,00
6	INBERTSIO ERREALAK	781.737,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		835.263,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbateko a
8	FINANTZA AKTIBOAK	835.263,00
GUZTIRA		835.263,00



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

1:36

Tolosa, 2020ko maiatzaren 13a

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udaltzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

11. ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2020KO OTSAILAREN 3TIK APIRILAREN 30ERA (2020/223-2020/623). Alkatetzak 2020k otsailaren 3tik apirilaren 30era (2020/223-2020/623) bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei aipamen berezia eginez ondorengo dekretuari:

020/0568 Alkatetza dekretua, 2019ko Aurrekontuko likidazioaren onarpena.

Begoña Tolosa Mendia, Ogasun zinegotzi delegatuak Alkatetzak 2020ko martxoaren 26an emandako 2020/0568dekretuaren inguruko azalpenak eman ditu.

1:30-

Hitzez hitz honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA ZK 2020/568

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko martxoaren hogeita seian, OLATZ PEON ORMAZABAL, Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak,

Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioari buruz Jarduneko Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:



DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n:		15.657.346,06
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		4.793.146,11
Aurrekontuko zordunak :	4.707.130,37	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	86.015,74	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		4.576.827,51
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	3.136.462,75	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.440.364,76	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		15.873.664,66
5.- Saldo kobragaitzak:		2.713.474,11
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		2.671,64
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		13.157.518,91

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	1.122.026,43
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-75.359,94
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	3.455.674,79
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-175.803,99
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	4.678.145,27

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	3.436.840,17
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	6.321.039,93
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	9.757.880,10

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosan, 2020ko martxoaren 26an

ALKATEA

Olatz Peón Ormazabal

Nire aurrean,
IDAZKARIA

Begoña Garmendia Vazquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**12. UDALAK FINANTZATZEKO FORU FUNTSA:
EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDE POLITIKOEN MOZIOA.
EHBILDU TALDEAREN MOZIOA.**

Parte- hartzeak:

... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE): *Aurreko puntuan zaldu dugun bezala, Covi19a etorri zaigula eta zoritxarrez bere ondorio ekonomikoak oso larriak izango dira. Lehengo urteko hauteskundeetan inork ez zen aurkeztu Koronabirus honek ekarri dituen kalte guzti honi aurre egiteko. Manualak ez zeuden prestatuta munduko gobernu guztien politikoei*

Erakunde guzti une askotan inprobisatzeko beharrea aritu dira zeren ezinbestekoa izan da hainbat eta erantzun ematea ahalik eta azkarren. Eta nik uste du, gobernu guztien oposizio politikoei euren gobernuari leporatu diote inprobisazioan erortzea. Nola ez ba? Seguruenik, Foru Aldundiak FOFIMen kasuan duen jokabidea, udal kudeaketan duen garrantzia dela eta, hobe izan beharko zatekeen. hau dela eta, hemendik aurrera Udal Finantzatzeko Foru sistematikan ala metodologian aldaketak beharrezkoak izango dira. Dударik gabe Euskal sozialistok Gipuzkoako Eudeleko Batzorde Betearazlean planteatu dute beharrezkoa dela informazioa partekatzea, krisi sanitario, ekonomiko eta sozial horri aurre egin ahal izateko, erakundeen artean koordinatuta eta Aldundiaren eta udalen arteko lankidetzaz eraginkorraren bidez. Ildo honetatik, erabakiak hartu baino lehen, Foru Ogasunaren eta udal ogasunen diru-bilketaren aurreikuspenak ezagutu behar dira, bai eta udalen egoera ere.

Hori dela eta, Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta Gipuzkoako udaletako ordezkariak bertan daudela, hiru hilean behin bildu dadila eskatzen da gure mozioan. Horrela, erabaki egokiak hartu ahal izango dituzte, Foru Aldundiaren eta udalen egoera ekonomikoa erabat ezagututa”.

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): *“ Gipuzkoako Foru Aldundiak esan bezala udalak finantzatzeko Foru funtsez alde bakartasunez murriztea erabaki zuen Diputatuen kontseiluan maiatzaren 12an eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean*



maiatzaren 14an argitaratu zuen. Hurrengo egunean, maiatzaren 15ean, Gipuzkoako Finantza kontseiluaren bilera egin zen non Aldundiak eta Udalek partzen duten. Zuek aipatzen duzue mozioan 3/2020 Foru dekretuaren araua aztertu zela kontseilu hartan baina benetan eman zena da berri emate bat, ez besterik, erabakia lehendik hartuta zegoelako. Egokiena gure ustez bilera horretan bertan gaia jorratu eta adostasun batera iristea zen. Zuek aipatzen duzuen bezala, gaur egun inoiz baino gehiago, erakundeen arteko elkarrizketa beharrezkoa da, baina guztien artean irtenbideak lortzeko, ez erabakiak aldebakartasunez hartu eta kaltetuei berri emateko. Nik hemen, ez dut ikusten Eusko Alderdi Jeltzalearen gobernantza eta auzolana. Horretxegatik Gipuzkoako hirurogei alkateek, EHBildukoak, PSEkoak eta Independentistak desadostasuna adierazi zioten neurri horren aurrean Aldundiari, alternatibak egon, badaudelako. Egoera gogorra bizitzea suertatzen ari zaigu osasun arloan batik bat, baina plano sozioekonomikoan ere, eta honek, argi daukagu, erabaki zailak hartzeak behartzen gaituela. Horregatik pentsatzen dugu, hain justu, erabaki lazgarriak guztion artean hartu behar ditugula, baina guztion artean diot, benetan, ez suspertzen plan izenburu soilik bezala. Udalak izan dira pandemiaren aurrean lehen larroan izan direnak, gastuak hartu dituzte bere gain, egoeraren premiagatik eskumenak nortzuk diren begiratu gabe batzuetan, egin behar diren gastuak egin eta orain Aldundiak babesgabe utzi ditu bigarren mailako instituzioak bezala tratatu ditu. Udalek, zuek esan duzuen bezala, tasek eta zerga bilketa nahiko murrizta izango dute eta gainera Foru Funtza murriztu egingo zaie. Kontutan izan behar da herri askorentzat finantzazio iturri nagusia dela. Adibidez, Larraulen, aurrekontuaren % 70 a suposatzen du, Orexan aurrekontuaren % 80a eta Tolosan aurrekontuaren % 52a inguru, ia 3.milioi gutxiago jasoko du Tolosako udalak. Zuk Olatz maiatzaren 14n, Atariko elkarrizketan, zenion bezala Udalak dira herritarrekin daukaten harremana zuzena eta horretxegatik Udalak herritarrengan pentsatu behar du, herritarrak erdigunean jarritz, benetan, eta ezin dena da alderdiaren irizpideak itsuan jarraitu eta aurretik jarri eta tolosarretan pentsatu gabe. Herritarrentzako politiketan kaltegarria izango duen erabaki baten aurrean, ezin gara horren lausoak izan. Horren aurrean, 56 alkateak bestelako proposamen bat aurkeztu zuten, 2020ko ekarpena berdin mantendu eta ematen den desfasea hiru urteetan zehar bueltatzea, 2008ko krisiaren ondorioz egin zen bezalaxe. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldiz, ezezko borobila eman zuen argudiatuz Aldundiaren aurrekontuak bete egin behar zirela eta ezin zela murrizketarik egin Aldundiko aurrekontuetan, Udalekoetan bai. Udal legeak arautzen duen bezala euskal erakundearen arteko finantza harremanak arautzen dituzten oinarrik ikusirik eta kontutan hartuta krisiaren intentsitatea eta arrisku partekatuaren printzipioa zuen mozioan aipatzen den bezala, ezin da karga guztia udalengan bakarrik jarri, herritarrengatik gertuen dagoen instituzioak hain zuzen ere, eta batez ere, berriro diot, horrelako erabakiak alde guztien artean hartu behar dira eta kasu honetan egokiena Gipuzkoako Finantza Kontseiluan elkarlanean erabakitzea litzateke. Gaur jakin dugu Markel Olano Aldun Nagusiak adierazi duela intentzioa udalekin Foru



eraginkor bat osatzeko. Ongi etorri izango da baina berriro diot gure ustez berandu dator.”

... Alkatea: *“Gaurko osoko bilkuran, lehen aipatu da ere, Koronabirusak eragin zuzena izan duela guztiengan, baina baita ere, erakunde publikoetan. Udalak bere aurreikuspenak egin behar izan ditu, egoera berrira egokitzeko eta horrek eskatzen duen ahalegin guztiarekin. baina udalak ez gara ariketa hori egiten jarri halabeharrez. Foru Aldundiak udal guztiak, norbere esparruan, gure lanketa egin genezan, martxoaren 20an, zuen mozioan maiatzaren 14a aipatzen duzue, baina dagoeneko martxoaren 20an, idatzi bat helarazi zuen udaletxe guztietara. Eta martxoaren 31n gonbidapena jaso genuen bilera batean parte-hartzeko. Bilera hori apirilaren 2an egin zen, eta han bertan, Gipuzkoako Foru Ogasuneko Diputatu berak, egoeraren berri eman zigun udal guztiei. Guztira, eskualdeko ezberdinetako 82 udalerrik parte hartu genuen bertan. Orduan, eskatu zigun Ogasuneko Foru Diputatuak aurrekontuak egokitzeko ariketa egin genezan. Eskatu zuen zuhurtzia eta pazientzia eta jakinarazi zuen udaletxe guztietara zein zen egoera. Baina Ander, pedagogia pixka bat, Euskadin erakundeen finantzaketa partekatua da, hemen ez dago murrizketarik, zuek aipatzen duzuen bezala, eta hori ez dakit jakinarazi nahi zuen eta azalerarazi eta ez da egia, murrizketarik ez dago. Euskadin finantzaketa partekatua da, onerako eta txarrerako. Jasotzen denaren zatik bat %70a Jaurlaritzako, % 17a Aldundietarako eta %10a Udalentzako. Aurreikuspenak baino gehiago biltzen baldin bada automatikoki denak bere proportzian jasotzen dute eta gutxiago biltzen bada gutxiago banatzen da. Adibide batez, aurreko urtean bildu zen aurreikusita zegoen baino gehiago eta aurtengo lehengo hiruhilekoan udal guztiak jaso dugu aurreikusitako horren eta jaso denaren arteko diferentzia gehigarri hori. Baina partekatuta da, hor aldebakartasunez erakundeek ez dute erabakitzen murriztea, kentzea edo jartzea. Bildu alderdia Diputazioan zegoenean ere, 2011n, Ogasunak Gipuzkoan bildutako aurreikusitako baino baxuagoa izan zen denok dakigun arrazoiengatik, eta udalek denetara laurogeita milioi itzuli behar izan zuten, Bilduk ez zuen bere horretan erabaki, hori finantza sistema partekatu horren ondorioa da. Gainera, kontutan eduki behar da 2012. urtean udalen egoera finantzarioa oso lazgarria zela eta udal askok, Bilduko diputazioaren tutelapean, plan ekonomikoak egin behar izan zituztela, egoera horri ere aurre egin behar ziotela euskal erakunde guztiek. Beraz, ez da murrizketarik, baizik eta da egoerari aurre egitea. Modu guztietara, egia da, gure usteetan, baita ere, mahai instituzionala sortzea beharrezkoa dela eta, zuk ondo adierazi duzuen bezala, badirudi jada adierazi dutela osatuta edo mahai osatzeaz dagoela, eta baita ere gure mozioa Finantza Lurralde Kontseilua hiru-hilean behin deitzea.”*

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): *“Erantzunez, esan duzu, martxoaren 20n idatzia jaso zenutela, martxoaren 31 bilera bat, eta apirilaren 2an. baina zuek esan duzun bezala egoeraren berri eman zen eta aurrekontuak egokitzeko esfortzua egiteko eskatu zitzaie udalei. Baina guk eskatzen genuenean zen beraien artean*



adostea, bai Aldundiak eta bai Udalen artean. Aipatu duzu 2012an, Euskal Herria bildu zegoenean, Martin Garitano Aldun Nagusia zela horrelako ajustea egin zela, baina ajustea egin aurretik Aldun Nagusia udaletxeko guztietako ordezkariekin bildu zen erabaki hori hartu aurretik eta hori da kasu honetan eskatzen duguna. Erabakia hartu behar dela? Ziurrenik bai, egoera oso zaila da ekonomikoa toki guztietan. Ziurrenik hartu beharreko erabakia da. Guk eskatzen genuena erabaki hartu aurretik biltzea udalekin eta erabakia guztion artean hartzea, gobernantzan eta auzolanean hartzea, besterik gabe."

... Alkatea: "Ander, erantzun dizudana da Markel Olanoren gidaritzapean Gipuzkoako Foru Aldundia bildu zela lurraldeko udaletxe guztiekin eskualdeko jakinarazteko aurreikuspenak ez zirela beteko eta guk daukagun finantzaketa sistemaren bitartez, adierazteko beherakada bat zetorrela. Hori ez da aldebakartasunez hartutako erabaki bat, ez dela murrizketa bat, baizik eta dela egoeraren berri ematea. Lehenago ere, udaletxe guztiekin."

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): "Egoera hori aurre egiteko moduak eta moduak daude"

... Alkatea: "Bai nik esaten dizudana da moduak egokiak zirela, hala ere, mahai instituzionala osatzearekin ados gaudela eta dagoeneko gainera hori martxan dagoela."

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILUDU): Horretarako Finantza kontseilua dago, horregatik eskatzen dugu mahai bat bazegoela eratuta eta erabaki zitekeela eta erabakia hartzea hiru egun aurretik ez zaigula bidezkoa."

... Alkatea: "Ez planteatu murrizketa bezala, ez baita murrizketa. Egoera bat da eta egoera horri aurre egitea. Finantza partekatua da, rekaudatzen dena banatzen da. Koronabirusa ez da murrizketa bat, ez da murrizketa gertatzen ari dena eremu pribatuan, ezta ere publikoan, egoera bat da. Egoera honetan sufrutuko dugu eta aurre egin beharko diogu, bai sektore publikoak eta bai pribatuak eta baita ere publikoak ez daudelako Koronabirusaren egoeratik kanpo, ez garelako gizarte honetako egoeratik kanpo bizi. baizik eta barnean."

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU) : Horretan ados gaude, lehenengo momentutik esan dut egoera oso lazgarria dela eta erabakia oso latzak hartu behar direla bakarrik eskatzen dugu denon artean hartu beharreko erabakiak direla."



TOLOSAKO
UDALA

Lehenik, Andu Martinez de Rituerto Arregui zinegotziak EHBILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du. Honela dio:

UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAREN INGURUKO MOZIO PROPOSAMENA

Maiatzaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Aldundiak udalei egiten dien diru-banaketan % 20ko murrizketa aplikatzeko Diputatu Kontseiluaren aldebakarreko erabakia. Horrelako erabakiei buruz hitz egiteko toki beharko zukeen Gipuzkoako Finantzen Kontseilua hurrengo egunean bildu zen eta dagoeneko hartuta zegoen erabakiaren berri emateko izan zen.

Udalak, herritarren beharretatik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, Udal Legeak aitortzen duen bezala. Zentzu honetan, euskal erakundeen arteko diru-banaketan aldaketarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar luke, aldeek informazioa modu gardenean partekatu ondoren eta inola ere ez aldebakarrez.

Zerbitzu publikoak garatzeko ezinbestekoa den finantzazioaz ari gara hizketan, udalen eguneroko kudeaketan eta herritarren bizitzan eragin zuzena duten erabaki politikoez. Horregatik, honako eskariak egiten dizkio Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari:

- UFFFri buruzko elkarrizketaren aldeko apustu irmoa egitea.*
- Berraztertu dezala aldebakarrez hartutako erabakia eta udalekin elkarlanean adostasun bat bilatu dezala udalen egonkortasun finantzarioa ere helburu izango duena.*
- Elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa dela sinetsita gaudenez Udalekin kogobernantzarako foro bihur dezala Gipuzkoako Finantzen Kontseilua. Bertan informazioa partekatu dadila, proposamenak aztertu eta adostasunak lortu daitezen, ondoren Gipuzkoako udalen finantzaketari buruzko Foru Arauan beharrezko isla izan dezaten.*

Tolosako Udalak erabaki honen berri emango dio Gipuzkoako Aldundiko Diputatu Nagusiari, Ogasun Diputatuari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiei eta EUDELeko Gipuzkoako eta EAEko zuzendaritzei.



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **ez du onartu** EHBILDU udal taleak aurkeztu duen mozioa

Jarraian; Jose M^a Villanueva Telleria PSE-EE udal taldeko zinegotziak EAJ/PNV eta PSE-EE udal taldeak adostutako mozioa irakurri du.

Honela dio:

Mozioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen arteko elkarrizketa-gune bat sortzeari buruz

Zioen azalpena:

Joan den maiatzaren 14an, Eudeleko Batzorde Exekutiboak proposamen bat egin zuen Foru Aldundiak eta lurralde historiko bakoitzeko Udalek osatutako elkarrizketa-gune edo Erakundearteko Mahai bat sortzeko eta artikulatzeko.

COVID-19ren pandemiaren ondorioz bizi dūgun salbuespenezko egoerak euskal ogasunen diru-sarrera fiskalei zuzenean eragiten ari zaie, Euskadiko enpresetako eta familietako ekonomian duten eraginagatik.

Alarma-egoeran hartutako erabakiak eragin zuzena izan dute erakundeetako diru-sarrera fiskaletan, baita udaletxeetan ere; izan ere, zerga itunduetan duten partaidetzan ez ezik, haien ordenantza fiskaletako diru-sarreretan ere murrizketak izango dituzte, osasun krisiak, krisi ekonomikoa eragin baitu.

Joan den 2020ko maiatzaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 3/2020 Foru Dekretu-Araua onartu zuen. Horren bidez, aldatu egin <lira Udalak Finantzatzeko Foru Funtsak 2020an kontura egindako entregak, eta



TOLOSAKO
UDALA

aurrekontu- eta zerga-arloko hainbat neurri ezarri <lira, toki-erakundeek erabaki-modu handiagoa izan dezaten kreditu gehigarriak onartzean, bai eta COVID 19ak eragindako egoerari aurre egiteko tasen hobariak egin ahal izateko ere.

Maiatzaren 15ean, Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluak 3/2020 Foru Dekretu-Araua aztertu zuen, bai eta horrek udal finantzetan dituen ondorioak ere, Gipuzkoako udalen Udal Finantzaketarako Funtsaren bidez.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, erakundeen arteko elkarrikereta beharrezkoa da pandemia honi modu koordinatu eta eraginkorrean erantzuteko.

Horregatik, Eudeleko Batzorde Eragilean jorratutakoa mahaigaineratu da, eta erabaki hauek hartzea proposatu da:

Mozioa

- *Eskatzea Gipuzkoan elkarrikeretarako mahai instituzional bat sor dadila Foru Aldundiaren eta EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordearen artean, lurralde-eremu instituzionaletatik krisiari erantzuten dioten ekimenetan koordinazioa bultzatzeko, lankidetzara eraginkorra garatuz, eta herritarrentzat erakundeen arteko gobernantza hobea lortzeko.*
- *3/2020 Foru Dekretu Arauak Finantzen Lurralde Kontseilua aipatzen du azaroko kuota jorratu eta aztertzeko. Hala ere, euskal erakundeen arteko finantza-harremanak arautzen dituzten oinarriak ikusirik, eta kontutan hartuta krisialdiaren intentsitatea eta arrisku partekatuaren printzipioa, inoiz baino gehiago beharrezkoa da, egoera ekonomikoari, diru-bilketaren aurreikuspeni eta udalen egoerari buruzko informazioa partekatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu Finantzen Lurralde Kontseilua hiru hilean behin deitzeko.”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **onartu du** EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozioa.

13. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez dago galdera erregurik.

Amaitzeko alkatea herritarrei zuzenduta hauxe esan du: "*Hasierako hitza eskerrak emateko erabiltzen ditudan moduan, amaitzeko momentu honetan, gustatuko litzaidake herritarrengana zuzentzea tolosar guzti-guztie eskerrak emateko. Eskerrak emateko herri modura azaldu dugun elkartasunarengatik, lehen bezala, beste krisi batzuetan ere orain tolosarrak solidarioak garela eta une zailetan indarrak batzeko eta elkar laguntzeko gaitasuna dugula erakutsi dugulako. Une zailak izan dira eta izango dira oraindik ere, eta orain arte bezala egingo diogu egoarari aurre elkarrekin eta elkar lagunduta, komunitatea sendotuta bizitakoa ikasi eta gauzak hobeto egiteko grinaz. Eskerrak eman bihotzez tolosar bakoitzari haur, gazte, heldu eta adinekoei itxialdi egoeran lanean aritu zareten profesional guzti-guztiei er bai, eskerrik asko, eta baita orain ere zuen jarduerak eta zuen negozioak zabaltzeko izugarrizko ahaleginak egiten ari zaretenoi. Bidean senitartekoak galdu dituztenei besakardada bat, osasun larrialdi egoera honen pasarterik ilunena bizitzea tokatu zaizuelako. Beraz, joan diren pertsonak guztiak gogoan izanik, ez dezagula bizitakoa ahaztu, jarri dezagula arduraz jokatzeko, orain ere garrantzitsuak delako neurriak errespetatzea, gugatik, guztiongatik eta gure herriarengatik aurrera begiratu dezagun itzaropenez, gogoz, eta ilusioz. Mila esker denoi. "*

Besterik gabe, 21:35ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2020ko maiatzaren 28ko Ohiko Osoko bilkura